



**"Osasuna dugun bitartean,
argi daukagu militatzen
jarraituko dugula"**

Durangoko jaiak • Amparo Ereñaga Ertzillak eta Marisa Barrena Larruzeak jaurtiko dute Durangoko jaietako txupin nagusia. Durangoko mugimendu sozialetan ibilbide luzea duten herritar bi dira, feminismoan, euskalgintzan zein beste hainbat arlotan urte askoan ibilitakoak. "Gizartea orekatzeko amets horiek beteko dituzten itzaropena" daukate. • **17**



"Plateruenak eta ANBOTOK argi erakusten dute Berbarok herrian eragin duena"

Euskara • Berbaro euskara elkartean 24 urtez lanean egon ondoren, Fernan Ruizek erretiroa hartu du gaur. Durangoko euskaren eta euskalgintzaren egoeraren inguruko galderei erantzun die. Ainhoa Zabarte zaldibartarrak hartu du Ruizen lekukoa euskara elkartean. • **2-3**



Osasun mentala erdigunera

Osasun mentalaren eguna • Zapatuan Lortzen eguna ospatuko dute Abadiñon. Osasun mentalaren gaia erdigunera ateratzea da egun honen asmoa. • **10**

Gehigarria


**Durangoko
jaiak
2022**

Urriaren 31ra
bitartean
**URTEURREN
ESKAINTZAK**

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



Fernan Ruiz
Larringan

Berbaro

DURANGO | 1958

"Durangon hainbat eragile dago euskarari bultzada emateko, baina gure artean lotura handiagoa egon beharko litzateke"

Berbaro elkartean 24 urtez lanean egon ondoren, Fernan Ruizek erretiroa hartu du gaur

DURANGO • JONE GUENETXEA

Fernan Ruiz Larringanek erretiroa hartuko du gaur. Durangoko Berbaro euskara elkartean egin ditu bere lan ibilbideko azken 24 urteak. San Fausto bezperetan bizitzako aro berri batera pasatuko da. Lantaldeko beteranoena badoa bulegotik, ordainpeko lanetik, baina ez militantziazatik. Euskalgintzan zein elkartegintzan jarraituko du.

Berbaroko lehenengo jubilatua izango zara.

Lantaldeari dagokionez, bai.

Gaur izango da zure azken lan eguna. Astelehenean ez duzu iratzargailua ipini beharrik izango.

Urduri nago. Bizimodua aurrerantzean aldatu egingo zait. Errutina neurri batean ona da, baina ez dakit aldateta hau zelan hartuko dudana. Egoera arraroa izango da. Ume txikiek lez, egokitzapena beharko dut.

24 urte eman dituzu Berbaron.

1998an hasi nintzen, joan zen mendean. 40 bat urtegeaz hasi nintzen Berbaron lanean.

Zein gorputzaldigaz heldu zara jubilatziara?

Azkenengo urte biak, COVIDa dela eta, oso arraroak egin zaizkit. Gainera, etxez aldatu gintuzten. Niretzat Pinondo gure etxea zen. Urte asko egin nituen han, bai

AEKn eta baita Berbaro elkartean ere.

Zelan hasi zinen Berbaron lanean?

Berbaron bazkide lez hasi nintzen. Euskara zerbitzuari dagokionez, AEKri eskerrak hasi nintzen lan horretan. Udaleko euskara zerbitzuan Juan Antonio Atutxa zegoen teknikari. Euskara kontseilu bat zegoen eta Andoni Mujika ere bertan zebilen. Euren artean oso hartu-eman ona zuten. Gainera, sasoi hartan Andoni Mujika udaleko langilea eta Berbaroren sortzailea izan zen. Argi zuten euskara normalizatzeko plan bat behar zela administrazioan. Txosten bat landu zuten bien artean.

Horixe izan zen abiapuntua euskara zerbitzuan beste langile bat kontratatzeko. Herritar moduan hainbat euskaltzale eta eragilek prentsaurrekoa eman genuen euskara zerbitzua bultzatzeko, eta, handik gutxira, postu hori betetzeko proposamena egin zidaten. Ez nuen asko pentsatu eta baietz erantzun nien.

Berbaron bazkide lez hasi nintzen. Euskara zerbitzuari dagokionez, AEKri eskerrak hasi nintzen lan horretan

Euskara zerbitzuak zein garapen izan du?

Eusko Jaurlaritza udalei euskara planak gomendatzen hasi zen, lau urteko epeagaz. Aurretik ekintza solteak egiten genituen, baina marko orokorrik barik.

Euskararen erabileran zein garapen igarri duzu?

Ezagutzen aurrera goaz, baina erabilera da indartu gura duguna. Transmisioa oso lotuta dago erabileragaz, eta hor ere igartzen da gabezia. Transmisio hori huts egiten dabil. Kontu generazionala dela uste dut, neurri batean.

Berbarok lan handia egin du arlo horretan.

Sortu zenetik egindako bidean igarri da herrian. Gaur egun dituen egitasmoak horri begira daude: umeak eta gazteak. Zerbitzu-entrepresa forma ere hartu du, baina beti helburu jakin batez: euskararen erabilera, sentsibilizazioa, motibazioa... Eta hau guztia baita helduentzat ere. Administrazioan euskara plana kudeatzen lagundu eta langileak trebatzeko saioak ematen ditugu.

Zelan baloratzen duzu administrazioa euskalduntzeko prozesu hori?

Administrazio barruan ez naiz arlo horretan lanean ibili azken urte hauetan. Hala ere, administrazioa ezagutzen dut apur bat. Nire ustez, administrazioan aurrerapen batzuk izan dira. Hezkuntzak aurrera egin duen neurrian, igarri da administrazioa etorri diren langile berrien profila aurrekoena baino euskaldunagoa dela. Ezagutzari buruz nabil. Azken 10-15 urtean sartu diren langileak ezagutza horregaz etorri dira. Erabilera beste kontu bat da eta horretan udalak, eta administrazioak orokorrean, badu zeregina. Lehentasuna erabatekoa ez den bitartean oso gaxa izango da.

Euskara ikastea oso gaxa dela diote batzuek, administrazioko profilei dagokienez. Zuk zeuk euskara "galdu" egin zenuen eta berririki ikasi zenuen. Euskaldunberria naiz, baina neu-

rri batean. Ama euskalduna zen eta amama bizi zen artean eurekin euskaraz egiten genuen. 12 urtera arte euskaraz jarduten genuen. Sasoi hartan, Landako baserri ingurua zen, eta kalean gaztelaniaz berba egiten genuen lagunekin. Eskolan ere gaztelaniaz ikasi genuen, eta galdu egin nuen euskara, galdu euskaraz berba egiteko erraztasuna. Ondoren, berreskuratzeko prozesu bati ekin nion. AEKn hasi nintzen eta lau zapost urte egin nituen mailarik maila. Gero, bertan geratzeko endredata ninduten. Irakasleak behar zituzten eta lanean nenbilen lantegia txarto zebilenez, AEKra joatea erabaki nuen. Urte gutxira, fabrika hura zarratu egin zuten. Damurik ez! Mundu hau ezagutu nuen.

Euskalgintzaren aldetik, Durangon zein eronka ikusten dituzu?

Durangon hainbat eragile dago euskarari bultzada emateko, bai erabilera eta baita transmisioan ere. Hala ere, inpresioa dut eragileok tren berean goazela baina bakoitza bere bagoian: hezkuntza, elkarteak, udala... Hartu-emanak egon badauden arren, askotan zerbitzuak emateko dira. Gure artean lotura handiagoa egon beharko litzateke. Eragileok euskarari bultzada emateko, bagoi bakarrek tren bat izan beharko litzateke, denok batera joan gaitezten.

Euskaraldia dinamizatzen ibili zara. Aurten ere badator hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa.

Jendearen aldetik entusiasmo gehiago nabaritu gura nuke. Euskaraldiak proposatzen dituen dinamikak onak dira, interesga-

Berbarok herrian eragin duena argi erakusten duten proiektuak dira, bai ANBOTO eta baita Plateruena ere

rriak. Baina hori urte birik behin lantzeaz gainera, jarraipena beharko luke. Oraingoan elkarrekin ipini dugu fokua ariguneak martxan ipintzeko. Oso jarrera onagaz erantzun digute. Euren arteko jardunean hortxe txertatzea izango litzateke hurrengo pausoa.

Ainhoa Zabartek hartuko du zure lekukoa. Zein aholku emango zenioke?

Oso gaxa da aholkuak ematea. Berbaroko lantaldean ondo integratzea, batez ere horixe izango delako bere oinarria eta laguntasuna emango diona denerako. Baliabideak eskainiko dizkiote edozein ekintza planteatzeko. Pertsona ekimentsua da eta gertu dago lanerako.

Berbaron hainbat proiektu jaiotzen ikusi duzu. ANBOTO, Plateruena...

Berbarok herrian eragin duena argi erakusten duten proiektuak dira, bai ANBOTO eta baita Plateruena ere. Plateruena Berbarok bultzaturiko proiektua izan zen. Durangon egon den ekimenik inportanteena izan daiteke. Euskaratik sortuta, euskal kultura bultzatu eta zabaldu duena eta gaur egun geldirik dagoena. Berbarok hortxe egon da, antzokia sortu zenetik zarratu arte. Bere

hutsunea igartzen da. Euskaren erabilera eta sentsibilizazioa elikatu ditu kultur ekintzen bitartez, eta espazio bat izan da kulturgileentzat. Plateruenak oso lan inportantea egin du.

Garrantzitsua litzateke aurrerantzean Plateruenak irizpide horiek mantentzea.

Bai, kudeaketa eredu agian aldatu egin beharko litzateke, edo ez. Baina bere ezaugarriak man-

tenduta. Gaur egun Plateruena ezinbestekoa da. Eta ANBOTO ere bai.

Horri buruz ere galdetu gura nuzin, ANBOTO ere euskara elkarteek sorturiko proiektua da eta.

Durangaldeko euskara elkarteek proiektu bat izan zen. Berbarok bultzada handia eman zion proiektuari. Erazetik ANBOTO-rako jauzian batez ere. Lan handia egiten duzue.

Orduan, aukera ona izango da zure jubilazio aurreko azken lan egunean ANBOTO-n agertzea. Zein mezu bidali gura duzu agur modura?

Agur eta kito (barrez). Ni banoa ordainpeko lanetik. Gero, ikusiko dugu. Hori bai, militantziagaz jarraituko dut.

ANBOTOko kolaboratzaile izateko aukera asko duzu.

Urte askoan zutabegile izan nintzen, baina ikusiko dugu.

Txirrindularitzak utziko dizu tarteren bat testuren bat idazteko? Orain astia izango duzu pedalei eragiteko.

Iurretako taldean ibiltzen naiz. Gehienetan jubilatuekin elkartu izan naiz, eta orain bai, eurretari-ko bat izango naiz. Gure irteerak eta planak egiten ditugu. Gura nuke elkartean ekarpena egitea. Zuzendaritzan nago eta hortxe jarraituko dut.



Ezkerrean, Fernan Ruiz eta Ainhoa Zabarte. Eskuman, Fernan Ruiz Berbaron lanean hasi zeneko argazkia.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

ASTE HONETAN

Errebotea

**Zubietarren
altxorra**

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean



Landako Gunean aparkatutako ordu bakoitzagaitik 0,82 euro ordaindu beharko da aurrerantzean

Udalak prezio publikoak berri eta bonu berriak kaleratu ditu. Aparkalekua 24 orduz egongo da erabilgarri

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak Landako Gune aparkalekuko prezioak berri ditu. Indarrean sarturiko neurri berriak hainbat moldaketa ekarriko du besapean. Esate baterako, aparkatzeko prezioari dagokionez ordu bakoitzeko. Lehen, 0,74 euro ordaintzen zen orduko, eta aurrerantzean 0,82 euro paga-

tu beharko da. Iker Urkiza zinegotziak azaldu duenez, udalaren betebeharra "2015etik eguneratu barik zeuden prezioak eguneratzea" izan da. Kostuen analisi bat egin dute horretarako, kontuan hartuta Landako Gunea dela herriko erdigunetik gertuen dagoen aparkalekua. Horrez gainera, bonu berriak kaleratu dituzte.

Egunez 07:00etatik 21:00etara erabiltzekoak, gauz edo jaiegunetan 20:00etatik 08:00etara erabiltzekoak, 24 ordukoak zein erabilera bakoitzagaitiko bonuak. *Anboto.org* atarian kontsultatu daitezke bonu bakoitzaren xehetasunak.

Oposizioko alderdiek prezio publiko berrien kontra egin dute. PSE-EEko Jessica Ruizen iritziz, "ez dira tarifa logikoak" eta ez dute gaia "behar den modura" lantzeko aukerarik izan. EAJko Josune Escotak "azterketa sakonago baten falta" igarri du, eta prezio berriek ez dutela Merkatu Plaza dinamizatzen lagunduko iritzia dio. Herriaren Eskubideko Jorge Varelak "proposamen berriak jasotzeko prestutasuna" agertu du. Aparkalekua 24 orduz egongo da zabalik aurrerantzean.



Landako Gune aparkalekurako sarrera.

Durango Gastrobonuen kanpaina azaroan egitea aurreikusi dute

Herriko ostalariek zabalik dute kanpaina izena emateko epea. Guztira, 5.200 bonu ipiniko dituzte zirkulazioan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak Gastrobonuen kanpaina berria hasiko du lastrer; aurreikuspenen arabera, azaroan. Hori dela eta, udal ostalariei dei egin die kanpaina izena ematera. 26.000 euro ipiniko dituzte egitasmorako, eta 5.200 bonu ipiniko dituzte zirkulazioan herritarren eskura. Kanpainara batu gura duten ostalariek Herritarrentzako Arreta Zentrora edo Udalaren Egoitza Elektronikora jo behar dute. Balerkotzat hartuko dituzte Duran-

gokoak diren eta gehienez 10 langile dituzten sukaldaritzako eta ostalaritzako establezimenduak. Udalaren iritziz, Gastrobonuak "oso tresna erabilgarria" dira ostalaritzako kontsumoa sustatzeko. "Urte bi oso gogorren ondoren, erakunde publikoek ekonomia suspertzen lagundu behar dugu, eta azken urteotan Merkataritza Bonuekin eta orain urtebete Gastrobonuekin egin dugun apustu garrantzitsuak erakusten digu oso tresna erabilgarriak direla", adierazi dute.



Terraza bat, Durango Montevideo kalean.

HAPOaren aurrerapenak Maristak ikastetxearen proiektu berria "arriskuan" ipintzen duela uste du Durango EAJk

EAJren esanetan, planak ez ditu proiektuaren "eraikigarritasun beharizanak bermatzen"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango EAJk dioenez, Plan Orokorren aurrerapenak "arriskuan" ipini dezake Maristak ikastetxeak garai bateko Fundifes lantegiaren orubean eraikitzea duen proiektua. Sara Oveja zinegotziaren

berbetan, HAPOaren aurrerapenak ez du Maristen proiektuak eskatzen dituen eraikigarritasun beharizanak bermatzen, lur arlo horretan babesturiko etxebizitzetara bidea ematea ere aurreikusten delako". Horrek Maristen proiektua

"jausiarazi" dezakeela uste dute. Bestalde, PERlari dagokionez, gaur egun indarrean dagoen proiektua mantentzea eskatu du EAJk. "Ezinez bestekotzat" jo dute proiektuko "ekipamendu azpiegitura" bere horretan mantentzea.



Maristen proiektu berria Fundifes izandakoaren orubean eraikitzea aurreikusita dago.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko urriaren 7a
20. urtea - 908. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Espainiako gobernuak Saharako auzian izan duen jarrera aldaketa migrazio eta baliabide naturalen politiken ondorio da"

Salahdin Abdala Saharako Presoen eta Desagertuen Senideen Elkarteko (Afapredesa) kidea da. Asteon Durango egon da Saharan gertatzen dabilenaren berri ematen



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Salahdin Abdala kazetaria eta preso ohia da. Lau urteko espetxealdia egin du Marokoko kartzeletan, "independentzia, askatasuna eta autodeterminazioa eskatzeko manifestazioetan parte hartzeagaitik". Orain, Nushatta Fundazioaren bitartez, kazetaritza lanak egiten ditu "Saharako herriak bizi duen mina nazioartean zabaltzeko".

Zelan zaude?

Ondo nago, baina egoerak bere horretan jarraitzen du. Ez naiz geldituko Sahararen askatasuna eta independentzia lortu arte.

Lau urteko espetxealdia egin duzu Marokon, Sahararen askatasunaren aldeko manifestazioetan parte hartzeagaitik. Orain ere Sahararen aldeko mezuak zabaltzen dituzu nazioartean. Arriskuan zaude?

Lau urteko faktura ordaindu dut Marokoko kartzeletan, kazetaria izateagaitik bakarrik. Kazetarien eskubideak aldarrikatu gura ditut. Baina horrek ez dit niri bakarrik eragiten. Nire familiari ere eragiten dio. Baliabide ekonomikoak direla eta, nire anai-arrebei ez die goi-mailako ikasketak amaitzen utzi. Bestalde, Nushatta Fundazioari ez diote lana behar den moduan egiten uzten. Preso dauden sahararrik gehienak kazetariak dira. Marokok uste du Nushatta dela bere etsai nagusia.

Zenbat preso eta desagertu dago lurralde okupatuetan?

Momentu honetan, 40 baino

gehiago dira Marokoko kartzeletan preso dauden sahararrak. Eta desagertuak 500 baino gehiago. Gainera, horri gehitu behar zaizkio Marokoko gobernuak desagertu horiek topatu ahal izateko ipintzen dituzten oztupoak. Lehentasunetarik bat Mohamed Basiri topatzea da, 1970ean Espainiako gobernuak Marokori entregaturiko lider sahararra aurkitzea.

Zein da Afapredesak nazioartean duen errekonozimendua?

Erakunde askoren babesu dugu. Human Rights da eurentariko bat, Amnesty International beste bat. Presoei dagokienez, Europako Parlamentuak sarri defendatu ditu euren eskubideak.

2020ko azaroan gerra giroa berpiztu zen Fronte Polisarioaren eta Marokoren artean. Zein da egungo egoera?

Nazio Batuen Erakundeak egoera aldatzeko ezer egiten ez duela ikusirik, Saharako herriak armak hartu behar izan ditu berriro. Urte hauetan zehar, bake akordioa egon da indarrean, baina Saharako herriaren sufrimendua bere horretan jarraitu du. Esate baterako, gure fundazioan, Nushattan, kazetaritza lanak egiten ditugu Saharako Lurralde Okupatuetan. Gaur egun ez digute lana behar den moduan egiten uzten.

Zein egoera bizi dute Lurralde okupatuetan bizi diren sahararrek?

Marokoko gobernuak Saharako kulturari loturiko guztia aldatzen hasi zen 1975ean. Herriarrek bizitzaren aspektu guztietan bizi dute sufrimendua. Baliabide naturalak ustiatzeko eskubideak ez dituzte sahararrek, autoktonoek; marokorrek baino. Eta frogatuta dago itsasotik harturiko arraina eta fosfata ez direla Saharako herritarrentzat. Marokoko erregearentzat eta bere aliatuentzat dira. Bien bitartean, Marokok dio Mendebaldeko Sahara paradisu bat dela, eta hori ez da horrela. Infernu bat da. Sahararrok ez dugu ezelako eskubiderik han.

Espainiako gobernuak Saharako auziarekiko jarrera aldatu zuen martxoan. Zer dago jarrera aldaketa horren atzean?

Espainiak Marokoren pausoei jarraitzen die. Pedro Sanchez presidentek Marokoko erresuma dauka orain aliatu modura. Hau guztia migrazio eta baliabide naturalen politiken ondorio da. Espainiako gobernuak bertan behera utzi ditu Saharako herriagaz zituen ardura guztiak. Izan ere, Espainia da sahararrek bizi duten sufrimenduaren lehenengo erantzulea. Pedro Sanchez presidentearen erabaki txar bat gehiago da Espainiak urte hauetan guztietan harturiko erabaki txarren zerrendan. Dena dela, gauza bat da ziurra: Saharak independentzia lortuko du.

Kutsadura akustikoa neurtzeko azterketak egingo dituzte Alde Zaharrean

Durango Udalak Zarata Mapa egin gura du. Egunotan DAZ Durango Alde Zaharra elkarrengaz batu dira

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak martxan ipini du Alde Zaharrean azterketa akustikoa egiteko prozesua. Zarata Mapa egin gura dute, horregaz "kutsadura akustikoa murrizteko politikak bideratzeko helburuagaz". Hori dela eta, agintariak DAZ Durango Alde Zaharra elkarteko kideekin

batu dira asteon. Azterlana 2023 hasieran egin gura dute, "bainagai hori eta beste batzuk udalak auzokideekin etorkizunean egingo duen bileran erabakiko dira", esan du udalak. Ima Garrastatxu alkateak esan du soinu inpaktua murriztuta "herritarren bizi kalitatea" hobetu egingo dela.



Goienkaleko gau giroa, 2020ko azaroan.

Garaiko Nagusien Elkarteak Benantzi Zabala eta Felix Aresti kideak omendu ditu

Zabala eta Aresti elkarteko kiderik beteranoenak dira. 94 eta 91 urte dituzte. "Pozarren" jaso dute omenaldia

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko San Migel Nagusien Elkarteak bere kiderik beteranoenak omendu ditu: Benantzi Zabala (94 urte) eta Felix Aresti (91 urte). Ekitaldia zapatuan egin zuten, nagusien elkarteak sanmigeletan egiten duen urteroko bazkarian. Zabalak eta Arestik "pozarren" ja-

so zuten gainerako elkartekideen omenaldia.

Elkarteak bazkariko "giro bikaina" azpimarratu du: "Oso giro ona izan genuen, denak primeran irten zuten. Marmitakoa, solomoa piperrekin eta euskal pastela jan genuen", azaldu dute elkartetik. 33 bazkaltiar batu ziren.



Omenaldi ekitaldia joan zen zapatuan egin zuten.

16 pintxoren eta 16 tabernaren arteko lehia, Zornotzako Jan Alai lehiaketaren 9. edizioan

Pintxo lehiaketa atzo hasi zen eta domekan amaituko da. Kontsumitzaileek sarietariko bat erabakiko dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zornotzarrek herriko ostalariek prestaturiko mokadurik finenak dastatzeko aukera izango dute domekara arte. Jan Alai pintxo lehiaketaren 9. edizioa martxan da. 16 taberna eta 16 pintxo nor baino nor gehiago. Hori bai, itxura bikainekoak eta mimoz kozina-

tuak guztiak. Taberna lehiakideak hiru eremutan banatu dituzte eta hauetxek dira lehiaketan parte hartzeko egunak eta orduak: urriaren 6an 18:00etatik 21:00etara; urriaren 7an eta 8an 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:00etara; eta urriaren 9an 12:00etatik 15:00etara.

Sari nagusien artean honako hauek daude: pintxorik berritzai-leenaren saria (1.000 euro, plaka eta txapela), zerbitzaririk profesionalenaren saria (plaka eta 250 euro) eta herritarren saria (1.000 euro, plaka eta txapela). Azken honi dagokionez, herritarrek hiru pintxo kontsumitu beharko dituzte eremu bakoitzean. Beraz, bederatzi gutxienez. Hori horrela dela ziurtatzeko, kupoiak itsatsi beharko dituzte boto paperean. Horrez gainera, pintxoak erosten dituztenen artean zozketak egingo dituzte. Batetik, 500 euro zozkatuko dituzte gutxienez eremu bakoitzeko hiru tabernatan pintxoak kontsumitzen dutenen artean. Bestalde, Dendariak eta Iraunkor elkarteek 25 hozkailu-motxila eta hiru produktu sorta zozkatuko dituzte.



2015eko edizioko irudi bat.

Pump Track pistan trebatzeko ikastaroak emango dituzte domekan, Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Pump Track pista erabiltzen dutenek doako ikastaroa jaso ahalko dute urriaren 9an. Ikastaroak maila bitan bereizi dituzte: hastapen mailan eta maila aurreratuan. Hastapen mailako ikastaroa 10:00etatik 12:15era emango dute. Bertan, beroketa egokiak, oinarrizko mugimendu-patroiak eta jolasak landuko dituzte. Bestalde, maila aurreratugoko ikastaroa 12:30etik 14:15era emango dute. Beroketak, mugimendu-patroirik aurreratuenak eta txanda kronometratuak landuko dituzte. Ikastarorako inskripzioa Aldundiaren web orrian egin daiteke. Bertara joaterik ez dutenek pistan ipiniko dituzten QR kodeak eskaneatu beharko dituzte.

Iurretako Jubilatuen Etxea eraberritzen hasi direla iragarri du udalak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udala Jubilatuen Etxea eraberritzen hasi da, "adinekoen egungo premietara egokitze". Hala azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak ohar batean. Batetik, Goiuriko Ama nagusien elkartearen bulegoak berrituko dituzte, eta, bestetik, kafetegiko barra, sukaldea, jantokia, biltegia eta hainbat zerbitzutarako lokal bat; 273 metro koadro guztira. Altzariak aldatu, seinaleak hobetu, eta traba arkitektonikoak kenduko dituzte irisgarritasuna hobetzeko. 160.000 euro erabiliko dituzte.

Lanak amaitu artean gunebat egokituko dute Goiuria kulturegunean, asteburuetarako. Lokal berria 2023ko urte hasieran izan gura dute prest.

Jon Koldo Bikandiren abelburuak garaile Gernikan, Urriko Lehen Astelehenean

Iurretarrak lehenengo sariak eskuratu ditu ganadutegirik onenaren, behirik onenaren eta idiskorik onenaren kategorietan. Antzeko sariak irabazi zituen 2011n, 2012an eta 2016an

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Asteon, urriaren 2an, Urriko Lehen Asteleheneko azoka egin dute Gernika-Lumon. Bertako abelburuen lehiaketa Jon Koldo Bikandik irabazi du. Iurretarraren abelburuek kategoria guztietako lehenengo sariak lortu dituzte: ganadutegirik onenaren, behirik onenaren eta idiskorik onenaren lehenengo sariak. Epaimahaiak "produktuaren homogeneotasuna eta kalitatea" goraiatu ditu. Iurretarrak sari ugari eskuratu du Urriko Lehen Astelehenean. 2011n, 2012an, 2016an eta 2018an irabazi zituen sariak. Ganaduzaleek piriniotar arrazako abereak aurkezten dituzte Gernikako Azokan.



Jon Koldo Bikandi, aurtengo behi irabazleagaz.

Ekologistak Martxanek "metano isuriak" antzeman ditu Arriandiko gas azpiegitura batean

Talde ekologistak kamera infragorriak erabilia "egiazatu" du gas kutsakorra bota dela atmosferara

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Ekologistak Martxan eta Ecologistas en Acción elkarteek hainbat ikerketa egin dute Hego Euskal Herriko eta Espainiako estatuko gas azpiegiturretan. Prentsa oharrean azaldu dutenez, gasaren banaketarako 21 azpiegitura bisitatu dituzte guztira, eta "metano isuri esanguratsuak" topatu dituzte eurretari 10etan. Bat, Durangaldean: Arriandin kokatuta dagoen gas azpiegituran, Ekologistak Martxanek azaldu duenez. Talde ekologistaren esanetan, "azpiegitura askok gasaren zati bat askatzen dute" atmosferara, hodi sistemaren "presioa arintzeko". "Erreta" askatu ohi dute, "karbono dioxido modura egin dezan, gaitz txikiagoa, alternatiba metanoa botatzea denean". Baina Ekologistak Martxanen berbetan, "batzuetan, enpresa operadoreek errekontzari barik egiten dute haizatzua, gai kutsatzaile hori atmosferara askatuz". Hori Arriandiko gas transmisio zentroan "egiazatu" dutela diote. Uztailean egin zuten ikerketa.

Talde ekologisten esanetan, metanoak karbono dioxidoak baino gaitasun handiagoa du berotegi efektua eragiteko. "84 edo 86 bider handiagoa". Era berean, metano bidezko kutsadura "behar den modura arautu barik" dagoela diote. "Europar Batasunak eta estatu kideek neurriak hartu behar dituzte petrolioaren eta gasaren isurke-

"Metanoak karbono dioxidoak baino gaitasun handiagoa du berotegi efektua eragiteko"

tak murrizteko. Badira soluzio politiko erraz eta eraginkorrak industria horietan metano bidezko kutsadura azkar murriztu dezaketena", argudiatu dute.

Ekologistak Martxan eta Ecologistas en Acción elkarteek beste leku batzuetan ere topatu dituzte antzera bateko isuriak. Gasteizko azpiegituran esaterako, eta Espainiako beste hainbat lekutan (Errioxa, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Asturias).



MANCAMORE 2022

AMOREBIETA-ETXANOKO JAPONIAR
KULTURAREN JARDUNALDIAK

URRIAK
14-15-16



WWW.MANCAMORE.EUS





anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

URRIKO SARIAK



Mendigoikoa Bekoa jatetxean bi pertsonentzako eguneko menua.

Hitz liburu dendako liburuak:



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan! >



Eitzagako zabortegia zena.

Zaldibarko zabortegiaren auzian Eusko Jaurlaritzak legea bete zuela ebatzi dute European

Europako Batzordearen ebazpenak dioenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak legea bete zuten Zaldibarko hondakindegiko lur-jausiaren aurretik eta lur-jausiaren ondoren

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA / A. M.

Europako Batzordeak ebatzi duenez, Eusko Jaurlaritzak ez zuen legerik urratu Zaldibarko hondakindegiauzian. Hala jakinarazi du Jaurlaritzak asteon. Europako Parlamentuan Zaldibar Argitu Plataformak, Ekologistak martxan elkarteak eta Ermuko San Lorentzo auzo elkarteak egindako eskariari erantzuna izan da hau.

Txostenaren arabera, Jaurlaritzak "egoki" bete zituen lur-jausia gertatu aurrekoak: "Zabortegia ustiatzen duen enpresari baimena ematea, zabortegia ustiatzeko

fasean baldintzak betetzen zirela egiaztatzeko kontrolak, jarraipenak eta aldizkako ikuskapenak". Baita lur-jausiaren ostekoak ere: "Giza osasunean eta ingurumenean eragin negatiboak murrizteko premiazko neurri zuzentzaileak hartu zirela". Ermuko eta Eibarko ingurueta airearen kalitatea zaintzeko neurriak "eten-gabe" zaindu zirela ere gaineratu dute.

Zaldibar Argitaren iritzia

Zaldibar Argitu plataformak, ostera, bere iritzia kaleratu du ohar

baten bitartez. Bertan diote Jaurlaritzak helarazitako dokumentua baino ez duela eduki aztergai batzordeak bere txostenerako: "Aran-txa Tapiari ahaztu zaio aipatzea zabortegiari dagokion guztian Eusko Jaurlaritza alde batean dagoela, eta ez dela neutrala". Horrez gainera, epaitegietan dagoen CEDEX perituen txostena kontuan hartu ez izana kritikatu du plataformak: "Orain arteko txostenik zehatzena eta osatuena da. Bertan aipatzen da proiektu eraldatua osatzen duten dokumentuen artean kontraesanak, akatsak eta abar daudela".

Berrizburuko lorategi botaniko historikoa inauguratuko dute, urrian

Inaugurazio ofiziala urriaren 15ean egingo dutela iragarri dute, 12:00etan; kokagune naturala gehiago ezagutzeko, hainbat jarduera egingo dute datozen asteetan

BERRIZ • A. M.

Hiletako lanen ondoren, Berrizjauregiko lorategi botaniko historikoa inauguratuko dute berriro. Berrizjauregiko lorategiak 20.000 metro koadro baino gehiagoko azalera du eta ehun urtetik gorako espezieak daude bertan; besteak beste, haritz handiak, pagoak eta zedroak. Espezierik garrantzitsuenen buruzko 27 informazio plaka ipiniko dituzte, QR kode eta guzti. Urriaren 15ean izango da inaugurazio ekitaldia, 12:00etan; urriaren 9an, 15ean eta 22an egingo dituzte ekitaldiak. "Jarduera hauen helburu nagusia Berrizjauregi inguruan dagoen ondare kultural eta naturalaren balioa azpimarratzea da", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak.



Berrizburuko lorategia.



Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Loratzen eguna antolatu dute osasun mentala existitzen dela erakusteko

Cristina Frías abadiñarrak, Loratzen proiektuko sustatzaileak, bigarren Loratzen eguna antolatu du. Urriaren 8rako egitarau zabala antolatu dute Traña-Matienan, Abadiñon

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urriaren 10a osasun mentalaren eguna da. Gaia ezagutarazteko asmoz, iaz Cristina Friasek, Loratzen proiektuko sustatzaileak, Loratzen eguna antolatu zuen. Iazko arrakasta ikusita, Loratzen egunaren bigarren edizioa antolatu du. "Oso egun polita izan zen. Pertsonalki oso berezia niretzat. Nire testigantza kontatzeko au-

ker a izan nuen eta oso babestuta eta ulertuta sentitu nintzen. Eta, harrezkero, oso libre sentitu naiz antsietateaz berba egiteko", azaldu du abadiñarrak.

Loratzen egunaren bigarren edizioa urriaren 8an izango da. "Egitarau zabala antolatu dugu, pertsona guztiengana heltzeko. Guretzat garrantzitsua da gai hau txikitatik ezagutzeko eta lantzeko.

Hala ere, gatz da testigantzak topatzea, horrek jendearen aurrean berba egitea suposatzen du-eta, norberaren bihotza zabaltzea. Baina argi dugu gai honi aurre egin behar diogula, oraindino gauza asko dago lortzeko eta", jarraitu du Friasek.

'Osasun mentala existitzen da' egunari pankarta bat eginez emango diote hasiera, 12:30ean. Gero, 14:00etan, bazkaria egingo dute Taberna Zarrean, eta 17:00etan mahai-ingurua egongo da. Bertan hainbat testigantza egongo da eta Ernetu Psikologia eta Hezkuntzako psikologoek ere parte hartuko dute. 18:00etan, Aida Gomezen eskutik, poemen errezitaldia egongo da, eta 18:30ean Insömmnia taldearen kontzertua. "Abadiñar guztiak eta inguruko herrietakoak ere gonbidatuta daude. Osasun mentala denon ardura da eta gure esku dago mentalki osasuntsu dagoen gizarte bat izatea", amaitu du Friasek.



Iazko Loratzen eguneko argazkia.

Udazkenari ongietorria egiteko azoka Arrazolan

Domekan egingo dute azoka Arrazolan, urriak 9

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domekan, urriak 9, azoka egingo dute Arrazolako plazan, udazkenari ongietorria egiteko. Eixu elkarteak antolatzen duen eta Amillena Arrazolako Bentak babesten duen azokak 10:30ean zabalduko ditu ateak, eta bertaraten direnek inguruko artisau eta sortzaileen lanak ikusi eta erosteko aukera izango dute, 15:00 bitartean.

Honako artisau hauek dira udaberriari ongietorria egiteko azokan parte hartuko dutenak: Art izar, Kenika jewels, AGTZ printak, Hasi ta Hazi, Kukupraka, Mai mai sorkuntzak, Tartalo, Etxo, Amalur, Joyasjuvillajo eta Celest wild.

Domekako azoka, gainera, giro-tuta egongo da. Arrazolan arte sonoro experimentalak egongo da, Victor Hosiren eskutik.



Aurreko azoka bateko argazkia.

Aurrekontu parte hartzaileetan bozketa fasera pasaturiko bederatziko proiektu aukeran, Elorrioren

Elorrioko Udalak 50.000 euro ipini ditu aurrekontu parte hartzaileetarako. Urriaren 16ra arte bozkatu daiteke

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udala 2023ko aurrekontu parte hartzaileen bozketa faseagaz hasi da. Hori horrela, udalerriaren erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoek herritarren bederatziko proposamenen artean aukeratu dezakete, urriaren 16ra arte. Proiektu hauen artean aukeratu dezakete herritarrek: Arespakotxaga jaure-

giko parkea hobetzea, udalerriko gun e jakin batzuetan hiriko altzari berriak ipintzea, Berrio eta Aldape artean bide berde bat zabaltzea, rokodromo berri bat egitea, adinekoentzako ping-pong mahaiak eta aisialdiko elementuak eta ariketak egiteko aparatua instalatzea, lurrak erostea espezie autoktonoen birpopulatzeko, eskulturak

instalatzea hainbat espaziotan, umeentzako ur parkea egitea, eta kalistenia-parke bat egitea.

Bozketaren bigarren fasera, 200 ekarpenetik bederatziko pasatu dira. Elorriarrek paperean bozkatu

Etxeetara bidalitako triptikoen bitartez zein Internetez eman dezakete botoa 16 urtetik gorakoek

ahal izango dute, herriko postontzi guztietan utziko den triptikoa erabili. Triptikoa udaleko eta Iturri Kultur Etxeko hautetsontzietan utzi ahal izango da. Internet bidez ere egin ahal izango da, www.elorri.eus helbidean.



Elorrioko kale bateko argazkia.

hitz artekailea 23. durango
946 810 775
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

liburudenda

1^o BAR GLORIA
Nerea Izarabal (Eusa)

2^o MUNDUARI BERA INAN ZION ONTZIA
Joseba Sarrionandia / Ares (Pamplona)

3^o BERRIZ ZENTAURU
Katiña Aguirre (Elkar)

Eskeerak WhatsApp-ez eskeratu ☎ 686 214 964, ✉ Bizim. ez ordaindu eta etxean jasotu

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarría

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hasia espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

(Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

"Jai zoragarria izango da eta Senegalgo kulturaren murgiltzera gonbidatzen zaituztegu"

Zapatuan, urriak 8, Senegalgo kulturaren murgiltzeko jaialdia egingo dute lurretan, Askondon

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Fatou Diarisso eta Seynabou Sane Iurretako And Bolo elkarteko kideetarik bi dira. Zapatuan, Senegalgo kulturaren murgiltzeko jaialdia egingo dute lurretan, Askondon. "Jai zoragarria izango da, iurretar guztiak gonbidatzen ditugu Senegalgo kulturaren murgiltzera", adierazi dute And

Bolo elkarteko kideek. 17:00etan emango diote hasiera egitarauari, berbaldi eta jantzi tipikoen eta osagarrien aurkezpenagaz. 18:00etan dantza tradizionalak egongo dira, eta 19:00etan txirikordak egiteko tailerra. 19:45etik 20:30era, Senegalgo produktu tipikoen dastatzea egingo da.



Fatou Diarisso eta Seynabou Sane.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Hiru urte zain

Azken osoko bilkuran, Gobernu Taldeak Landako LESA aparkalekuaren prezio berriak onartu zituen. PSEn ados gaude LESako aparkalekua 24 orduz irekitzeko beharra zegoela. Dudarik gabe zerbitzu horiek (estaliak eta guardiakoak) dituen aparkaleku batek tarifa altuagoa izan behar luke. Honaino denok ados.

Baina ezin dira prezio horiek justifikatu, hauek egokitze egin den inbertsioagatik. Orduan, zer egingo dugu TADUko parkinekin? Izan ere, urbanizazioarako 256.000 euroko inbertsioa eta sarbide-kontrolerako, berriz, 29.585 eurokoa egin da. Pentsaren bidez jakin dugunez, proposamena eguneko prezioa euro batekoa izatea da.

Bestalde, 2020ko ekainean, Gobernu Taldeak argazkia atera zuen Muriaseko (BM azpiko) aparkalekuarekin akordio batera iritsi zela esanez, hau da, aparkaleku pribatuarekin. Akordioa honako hau zen: LESako prezioaren parekoa izatea. Gaur egun, Muriaseko (BM azpiko) aparkaleku horrek tarifa hauek ditu: 2,95 €/eguneko; 45 €/hileko eta 365 €/urteko.

Kontua da, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek LESaren aparkaleku publikorako onartu dituzten tarifak ez direla batere ohikoak: 0,82 €/orduko, 15 €/eguneko, edo, arraroak diren beste hainbat tarifa. Askotariko abonua jarri nahi lituzkete: eguneko edo ordurako abonua, erabileraren arabera abonua, plaza bermatua luketenak, bermatu gabeko plazak... Errealitatea da tarifa hauek ez daudela erakargarriak eta koherenteak izateko diseinatuak.

Geratu zaigun zalantza honako hau da: ea Muriaseko aparkaleku pribatua bultzatu nahi duten edo aparkaleku bat beharrezan garaje alokatuak izatea nahi duten.

Durungaldea asteen

Elorriko Udala hasi da dagoeneko San Jose inguruan skate parka eraikitzen

ELORRIO | Elorriko Udala hasi da San Joseko skate parka eraikitzen. Udaletik jakinarazi dutenez, herrian asko espero zen proiektu baten amaiera da, Elorriko gazteekin egindako prozesu parte hartzailearen emaitza. Lanak 241.000 euroko inbertsioa eskatuko du eta Zut enpresak egingo du. Hiru hile barru amaitzea aurreikusten dute.

Oraindino eman daiteke izena Besaidek antolaturiko plazako dantza ikastaroan

ELORRIO | Besaide dantza taldeak plazako dantza ikastaroa antolatu du 16 urtetik gorako herritarrentzat. Dantza taldetik azaldu dutenez, dagoeneko 80 lagunek eman dute izena eta oraindino izena emateko aukera dago. Izen-ematea PlazakoDantzak@gmail.com helbidera idatzita edo 635 73 82 77 telefonora deituta egin daiteke. Ikastaroak eguenetan dira, 17:00etatik 18:15era.

Mankomunitateko Adinekoen Zerbitzuak ikastaro, tailer eta berbaldiei berrekingo die

DURANGALDEA | Durangaldeko Mankomunitateko Adinekoen Zerbitzuak hilabete honetan ekingo dio berriro bere jarduerari: ikastaroak, tailerrak, berbaldiak eta Nagusilagun programako jarduerak. Jardueretan parte hartzeko, alde aurretik izena eman beharko da 94 620 05 46 telefono zenbakira deituta edo nagusiak@dma.eus helbide elektronikora idatzita.



Lapurretan egin dute Berrizko Hiltegixe Gaztetxean eta Zaldibarko Gaztetxean

DURANGALDEA | Astebeteko epean Berrizko eta Zaldibarko Gaztetxeetan lapurretan sartu direla salatu dute. Zaldibarko Gaztetxetik "tableta, dirua, alkohola eta beste hainbat gauza" eramantzen dituzte. Berrizko Gaztetxean atea eta leihoak apurtu eta kableak eta harraskak lapurtu dituzte. "Hurrengo egunetarako ilusio handiz antolatu ditugun kontzertuak eta bestelako ekimenak egitea oztopatu digute. Argi dugu eraso honek ez dituela bakarrik gaztetxea eta bertan lanean dabilzan lagunak kaltetzen, baita Berrizko herri osoa ere, gaztetxea bizi eredu bat kontsideratzen dugu eta", azaldu dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

BIZKAIA 2022
Urria

Bizkaia

Ondareabizkaia
www.ondareabizkaia.eus


PATXIKOBASO BASERRIA

Bisita eta ogi dastaketa:
Urtak 9, 11:00
Elkargunea: Iurretako plaza

Informazioa eta izen ematea: ondareabizkaia.eus

SAN FAUSTO JAIK 2022 DURANGO URRIAREN

12tik 23ra



ONDO PASA JAIETAN ETA ELKAR ERRESPETA GAITEZEN



DURANGO
Gertu egiten. Vite y conchito



DURANGO
Ukida - Ayuntamiento

Durangok jaiak 2022

Urriak 8, zapatua

08:00 Perretxikoen bilketa. Irteera Ezkurditik. Antolatzailea: Errotari Elkartea Mikologikoa

9:00 - 14:00 XII. Durangoko Azoka ekologikoa, Andra Marian. Antolatzailea: Marisatsa elkartea

Urriak 9, domeka

11:00 XXII. Mikologia erakusketaren edizioa. XXI. Argazki mikologikoen lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako XXI. Lehiaketa, Landako Gunean. Antolatzailea: Errotari Elkartea Mikologikoa

12:00 Durangar jaiaberri ongi etorri ekitaldia. Landako Gunean

Urriak 10, astelehena

Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera nagusientzat. Izen-ematea doan izango da, urriaren 3tik 8ra arte, adinekoentzat udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira urriaren 9an. Laguntzailea: Cafés Baqué

Urriak 11, martitzena

20:00 Kalejira Santa Anatik txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

20:30 Txupinazoa txosnagunean

22:00 Kontzertuak txosnagunean: Konorte, Parkatu, Penny Fleck eta Laru

Urriak 12, eguaztena

Durango Rugby Taldearen eguna: 'Mexiko, polita eta maitea'

12:00 Kalejira Durangoko Orfeoiaz Alde Zaharretik

17:00 Kuadrillen elkarretaratzea, San Fausto auzoan. Etorri kamisetekin jantzita eta parte hartu! Sariak eta bonuak banatuko dira! Animazioa. Jaiak badatoz!

18:00 Patxikotxuri ongietorria San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitsiera, Landako Gunetik etorritako Patxinkegaz, udaletxeko plazaraino. Sugarri fanfarrea, buruhandiek eta animatzaileekin.

19:00 Txupinazoa, udaletxeko plazan. 2022ko txupinerak: Marisa Barrena eta Amparo Ereñaga. Gora San Fausto Jaiak!

19:30 Kale animazioa Sugarri fanfarreagaz Alde Zaharretik

20:30 Kontzertua: Dientes De Luna, Andra Marian

21:00 Egan taldea, Ezkurdin

22:00 DJ maratoni herrikoia txosnagunean

Urriak 13, eguena

07:00 Diana txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

10:00 Paella txapelketa, San Fausto auzoan. Paellak aurkezteko epea: 14:00. Sari banaketa 14:30ean. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

10:30 Eixu artisau azoka, txosnagunean

11:00 Meza nagusia, San Fausto elizan

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Eurria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean (Eurria bada, Nevers ikastetxean)

12:00 Zirkua eta antzerkia Xabi Larrearen eskutik "Up!!!" ikuskizunagaz Ezkurdiko Kioskoan. (Eurria bada, Kurutziaga ikastolan)

12:00 Haur eta familientzako Kalaka egurrezko jolasak, txosnagunean

12:00 Kalejira txistulariekin

12:30 Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa, udaletxeko plazan. Ondoren, Durangoko Dantzariak. (Eurria bada, Andra Mariko elizpean)

12:30 Paella txapelketa, txosnagunean (14:00etan sari banaketa)

16:00 Haurrentzako zezentxuak (zezen puzgarriak, zezenak gurplekin eta animazioa), San Fausto auzoan

16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Eurria bada, San Antonio ikastetxean)

17:00 Mañaria errearen jaitsiera Tabiratik. Antolatzailea: Txosna Batzordea

17:30 Txokolatada eta haurrentzako jolasak, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

18:00 Dantzaro Erdizka Lauetan taldeagaz, Ezkurdin

18:30 'Mute' zirku eta antzerki ikuskizuna, Orain Bi konpainiagaz, Aurora Abasolo parkean. (Eurria bada, Kurutziaga ikastolan)

19:00 Antzerkia San Agustin Kultur Gunean Yllana konpainiaren 'Greenpiss, un desmadre eco-ilógico' ikuskizunagaz. Sarrera: 12€

20:00 Festa poteoa, San Fausto auzoan

21:00 Talent Show Lehiaketa. Utzi lotsa etxean eta erakutsi zure abilezia ezkutuetan, Ezkurdiko eszenatokian (magia, dantza, abarketa jaurtiketa,... eta bururutzen zaizuna). Ondoren, animazioa

21:30 Kontzertua: Kai Nakai, Andra Mariko elizpean

Urriak 14, barikua

10:00 Haurrentzako arrantza txapelketa, Pinondon eta San Agustinen. Antolatzailea: Sociedad de caza y pesca

11:00 - 14:00 Haur parkea, Ibaizabal parkean. (Eurria bada, Nevers ikastetxean)

11:00 - 14:00 Zirku tailerrak, Andra Mariko elizpean

11:00 - 14:00 Mugikortasun jolasak, Intxaurrendoko Kultur eta Gazteentzako gunean. (Eurria bada, San Antonio ikastetxean)

16:00 Haurrentzako Herri Kirolak, Ibaizabal parkean. (Eurria bada, San Antonio ikastetxean)

17:00 'Hemendikara' zirku eta antzerki ikuskizuna Zirika Zirkus konpainiagaz, Aurora Abasolo parkean. (Eurria bada, Kurutziaga ikastolan)

18:30 Elektrotzaranga Motxaila Band kalerik kale

19:00 DJ musika animazioa guztientzat, San Fausto auzoan

20:00 'eRRe. Aldarri bat bertsoz!' ikuskizuna, txosnagunean

20:00 'Dendu' dantza eta musika ikuskizuna Harrobi dantza bertikala eta Oreka TX-gaz, Santa Anan

21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan

21:00 Herriko musika taldeen kontzertuak: Ainke eta Alerta Andra Mariko elizpean

22:00 Kontzertuak, txosnagunean: **Añube, Vulk eta Los Zopilotes Txirriaos**

22:30 Bertsolariak, San Agustin Kultur Gunean: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Saioa Alkaiza, Aitor Bizkarra, Miren Amuriza eta Aitor Mendiluze. Gai jartzailea: Unai Iturriaga. Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoko leihatilan, urriaren 4tik aurrera eta leku guztiak bete arte.

22:30 Kontzertua: Guns&Roses-i tributoa (Gansos Rosas) Ezkurdin

Irailak 15, zapatua

07:00 Diana txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

08:30 Sukalki txapelketa Landako Gunean. Izen-ematea eta informazioa Intxaurrendon irailaren 21etik aurrera, plazak bete arte. Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué.

11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Eurria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Eurria bada, Nevers ikastetxean)

11:00 Umeentzako Goitibeheren Jaitsiera probak, Tabira auzoan

11:00 Umeentzako zeramika tailerra, Intxaurrendon. Antolatzailea: Dukerami Zeramika elkartea

11:30 Begi Argiak abesbatzak emanaldia egingo du, J.M. Barandiaran egoitzan

11:30-12:30 Kamiseta banaketa, hainbat gunetan. Antolatzailea: Txosna Batzordea

12:00 Trikipoteoa Santa Anatik txosnagunera eta pintza jolas herrikoia

12:00 Kalejira txistulariekin

12:00 Kalejira, Bergarako erraldoiak Alde Zaharretik

12:00 Patxikotxuren kalejira Landako Eskolagaz Ezkurditik udaletxeraino, eta ohorezko aureskua

12:30 Txupinazo txikia Landako Eskolaren eskutik, udaletxe plazan

13:30 Begi Argiak abesbatzagaz kalejira Alde Zaharretik

14:00 Herri bazkaria San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

14:30 Gazte bazkaria, txosnagunean

16:00-19:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Eurria bada, Nevers ikastetxean)

16:00 I. Goitibeheren Jaitsiera, Tabira auzoan

16:30 Bingo musikatua, txosnagunean

16:30 Musika animazioa Stragos DJagaz, Landako Gunean

17:00 Jolas eguna: haurrentzako bits jai, Murueta Torre auzoan. Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkartea

18:00 'Zoro gaitzen' ikuskizuna Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoekin, Santa Ana plazan (Eurria bada, Kurutziaga ikastolan)

18:00 Kantu jira Alde Zaharretik: Bentazarreko mutiko alaiak

18:00 Karropoteo transmaribolloa Pinondotik. Ondoren, 19:30ean, Gazte karropoteoa txosnagunetik. Antolatzailea: Txosna Batzordea

19:30 'Kimera' zirku ikuskizuna La Banda Zirko taldeagaz, Aurora Abasolo parkean. (Eurria bada, San Antonio ikastetxean)

20:00 Música a capella: Golden Apple Quartet taldea 'Gran selección' ikuskizunagaz, Andra Marian

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

21:30 Animazioa Alde Zaharretik Ghanako Txarangagaz

22:00 Dantzaldia, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

22:00 Orkestra Azabache, Madalena auzoan

22:00 DJak txosnagunean: DJ Hija Del Nopal eta DJ Txillardeggi

23:00 Kontzertua Zea Mays taldeagaz, Ezkurdin

00:00 Argazki erraldoia, txosnagunean

00:00-03:00 Stand informatiboa programa testing Ai laket!, txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Droga-menpekotasunen Prebentziorako arloa

Urriak 16, domeka

07:00 Diana txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

10:00-13:00 San Fausto haur marrazki lehiaketa, San Fausto auzoan. Izen-ematea: 10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra. Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

11:00 Xake txapelketa umeentzat, Andra Marian. Aldibereko partidak. Antolatzailea: Larrasoloetako Xake Taldea.

11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00-13:00 Haurrentzako tailerrak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean) Antolatzailea: Iñurri Euskat Taldea

11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

12:00 Jolas eguna, ping-pong txapelketa eta 3x3 saskibalo txapelketa, San Inazio parkean. Antolatzailea: Auzo Alai elkarte (Madalena)

12:00 Poneyak eta zaldiak, Landako Guneko parkean. (Euria bada, ez da egingo)

12:00 Kalejira txistulariekin

12:00 Arte martzialen kalejira Ezkurditik hasita, Alde Zaharretik eta erakustaldia, Aurora Abasolo parkean. Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu.

12:30 Erromeria Luhartz taldeagaz, Ezkurdin

13:00 'Durango Uria' XXII. margo lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte

13:15 Los 5 Bilbaínos taldea, Andra Mariko elizpean

14:00 Nagusientzako bazkaria, Landako Gunean, orkestrak girotuta

16:00 Tortilla txapelketa, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

16:00 Dirtjump, trialsin, roller eta scooter erakustaldia Intxaurren.(Euria bada, Landako Gunean)

16:30 Umeentzako atletismoa Ibaizabal parkean: jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, ginkana). Izen-ematea: durangokiroitaldea@gmail.com Antolatzailea: Durango Kiroi Taldea. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

17:00 Jolas eguna: talo tailerra eta txitxiburduntzia, Otamotzena parkean. (Eguraldi txarragaz, Kurutziaga ikastolan)

17:30 Senegaleko erritmoak M´Lomp elkartegaz, Ezkurditik hasita

18:00 Zirkinik Bez musika taldea, Otamotzena parkean. (Eguraldi txarragaz, Kurutziaga ikastolan)

18:00 Haurrentzako ikuskizuna Iratxoan Kantu Sekretua, Andra Mariko elizpean

19:00 Kontzertua Musika eskolan: 'Inéditas: emakume konpositoreen ahots ikustezina'

19:30 Erromeria Luhartz taldeagaz, Ezkurdin

20:00 Monologoak Gurutze Beitia eta Gorka Aginagaldegaz, Andra Mariko elizpean

22:00 Dantzaldia, San Fausto auzoan

Urriak 20, eguna

19:00 San Agustin Kultur gunean break dance eta ikus-entzunezko ikuskizuna 'Su(i)rrealismo' Circle Of Trust eta Logela Multimediaren eskutik. Sarrerak: 8€ (Gazte-txartelagaz: 6€)

17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak, Ibaizabal parkean. Simulazioa: 19:00etan (Euria bada, San Antonio Ikastetxean)

17:00 Jolas eguna, San Fausto auzoan

18:30 'White Botton' ohe elastikoen ikuskizuna Ramiro Vergasegaz, Aurora Abasolo parkean. (Eguraldi txarragaz, Nevers ikastetxean)

19:00 Tortilla txapelketa, txosnagunean (20:30ean sari banaketa)

20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua, Santa Ana elizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie, Izar Gaztea eta Begi Argiak

21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan

viteri
HORTZ-KLINIKA

944 14 80 36 | 626 18 30 30 | Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia | www.clinicadentalviteri.com

Lehen bisita:
Erradiografia, diagnostikoa
eta hortzak
garbitzea doan

Deskontuak Inplantologian eta Ortodontzian

PROMOZIOAREN
LUZAPENA

(2022ko azaroaren 25a arte)

Finantzatu zure tratamendua 24 hilabetera arte, interesik gabe.

Durangok jaiak 2022

21:00 Kontzertua Bart Sax taldeagaz, Andra Mariko elizpean

22:00 Kontzertua txosnetan: Peio eta Itsua, J Martina eta Merina Gris

23:00 Kontzertua La Casa Azul taldeagaz, Ezkurdin

Urriak 22, zapatua

Txosnaguneko mozerro eguna: 'Denboraren makina'

07:00 Diana txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

11:00 Xake txapelketa federatuentzat eta federatu bakoentzat, Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

11:00-14:00 Umeentzako tailerrak Panpotx taldeagaz, Andra Mariko elizpean

11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00-14:00 Haur tailerrak Asebier elkartearen eskutik, Barandiaran kalean

11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

12:00 Kalejira txistulariekin

12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri Txiri taldearen eskutik

12:00 Patata tortillaren XIII. txapelketa, Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak/ 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Intxaurrondon urriaren 3tik aurrera, plazak bete arte

12:30 Xaibor disko-festa haurrentzako berbena, Ezkurdin

14:30 Elkartasun bazkaria, txosnagunean. Txartelak Mesoi Barrian eta Intxaurren. Ostean, elkartasun argazkia

16:00-19:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

16:00 XXVI. Larrasoloetako lagunarteko xake txapelketa federatuentzat, Ezkurdin. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea

17:00 Animazioa trikitixagaz pertsona nagusien egoitzetatik

17:30-19:00 Astronomia eskulan tailerrak eta ur suziriaren jaurtiketa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo) Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea

18:00 Dantza ikuskizuna 'Gazte' Oinkari Dantza taldea & Hika Teatrorren eskutik, Aurora Abasolo parkean. (Eguraldi txarragaz, Kuruztiaga ikastolan)

18:30 Kalejira DJ Reimygaz, txosnagunean hasita

18:30 Taldekako mozerro desfilea Madalenatik Andra Mariraino. Amaieran, sarien zozketa. Izen-ematea: urriaren 1etik 19ra, Intxaurrondon. (Euria bada, Andra Marian)

18:30 Kalejira Sugarri fanfarreagaz Madalenatik

20:00-22:00 AICE DJa, Andra Marian

21:00 Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo). Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea

21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan

22:00 Orkestra Diamante, Ezkurdin

22:00 DJak txosnagunean: DJ Reimy, Beñat eta Maixa

23:00 AICE DJa, Andra Mariko elizpean

00:00-03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Merialdearen Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Arloa

Urriak 23, domeka

07:00 Diana txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

11:00 Mañaria erreken garbiketa

11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Euria bada, Landako Gunean)

11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean (Euria bada, Landako Gunean)

11:45 Tabira Musika Bandak emanaldia egingo du, J.M. Barandiaran egoitzan

12:00 Jolas eguna, Tabira parkean

12:00 Kalejira txistulariekin

12:00 Haur marrazki lehiaketaren sari banaketa, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

12:00 Poneyak eta zaldiak, Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo)

12:00-14:00 Arku-tirorako gunea, Ibaizabal parkean (Euria bada, Landako Gunean)

12:30 Herri kirolak, Ezkurdin

13:15 Kontzertua Tabira Musika Bandagaz, Andra Mariko elizpean

17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L' Atelier Dantza Eskolaren eskutik, Ezkurdin

18:00 Mariatxi Internacional De Mexiko, Andra Mariko elizpean

18:30 Kalejira Irulitza fanfarreagaz Alde Zaharretik

19:30 Patxikotxuri eta jaietako agur esateko, Gigantes De Luz ikuskizuna udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretan

Urriak 29, zapatua

20:00 Durango Txistu Kontzertua 2022, Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkartea

Urriak 30, domeka

54. Umeen euskal jaiak. Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea

12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdi plazan (Euria bada, Landako Gunean)

MESOI BARRIA
Tel.: 946 030 341



RUGBY TABERNA
Goienkales, 18 DURANGO
Tel.: 946 200 007
www.durangorugby.eus



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-malla: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

ZERO
Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetakako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.
Andra Mari, 6 Durango
Tel.: 946 812 222



AIAMA
JAN TA EDAN DURANGO
Josemiel Barandiaran Kalea, 2, 48200 Durango
946 23 22 40

GORAGORA
kafetegia
Ariñuzeta 2 baxua (Tabirako auzoa)
48200 Durango
946 81 13 84

NAPOZÏ
Josemiel Barandiaran Kalea, 6, 48200 Durango
946 00 40 86



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Badatoz jaiak eta txupinazoa. Zelan zaudete?

Amparo Ereñaga Ertzilla: Urduri, gogotsu eta ardura apur bategaz nago. Denerik daukat nahastuta.

Marisa Barrena Larruzea: Ni ere antzera nago. Ardura daukat, emozioa. Eta poztasuna ere bai.

Durangoko mugimendu sozialetan ibilera luzeko pertsona bi zarete. Bai udalak eta baita Jai Batzordeak ere halantxik definitu zaituztete.

A.E.E.: Saltsa guztietan ibilitakoak gara. Gure Eskun, euskal presoan aldeko mugimenduan, feminismoan, sindikatuetan...

M.B.L.: Bai, saltsa guztietan ibili gara eta ibiltzen gara oraindino. Elkarriketa hau hasi aurretik, adibidez, beste batzar bat eduki dut. Argi daukadana da osasunak lagundu bitartean jarraituko dudala militatzen. Militantzia hori gizarte parekide baten alde eta Euskal Herri euskaldun baten alde egiteko erabiltzen dut. Nire ametsa Euskal Herria parekidea eta euskalduna izatea da.

Zuen bizitzetako zein momentutan hartu zenuten militante izatearen kontzientzia?

A.E.E.: Ni 17 urtegeaz hasi nintzen feminismoan. Garai hartan, emakumeoi etxean egotea zegokigun ideia hori zegoen errotuta. Baina apurka-apurka lan mundura sartzen hasi ginen, eta ikusten genuen ez zegoela haurtzaindegirik. Horixe izan zen nire lehenengo borroka. Horretarako, eta Durangoko jaietan dirua ateratzeko, taberna muntatu genuen, Madalenako lonja batean. Sinadurak batu genituen. Azkenean, lortu genuen haur-

“Osasuna dugun bitartean, argi daukagu militatzen jarraituko dugula”

Marisa Barrena Larruzeak (Zornotza, 1951) eta Amparo Ereñaga Ertzillak (Durango, 1957) jaurtiko dute txupin nagusia. Biek ala biek bizitza osoa eskaini diote Durangoko mugimendu sozialetan eragiteari. Feminismoan eta euskararen, adibidez

tzaindegia izatea. Hor hasi nintzen militatzen.

M.B.L.: Ni oso gazterik hasi nintzen beharrean, 15 urtegeaz, kooperatiba batean. Administrari laguntzailea nintzen. Zortzi orduko lana egin arren, emakumeok ez genuen kooperatibako bazkide egiteko aukerarik. Gure soldata gizezkoena baino askoz ere baxuagoa zen. Eta horrek zerbait piztu zidan barruan, bueltak ematen dizkiozu kontuari. Beharbada momentu horretan ez daukazu feminista izatearen kontzientziarik, baina desoreka begi bistakoa dela ikusten duzu. Gogoan dut Simone de Beauvoiren *Independentzia ekonomikoa* irakurri nuela. Hori irakurtzean piztu zitzaidan bonbila. Gerora, beste gaiekiko kontzientzia hartzen duzu: emakumeen aurkako indarkeria, abortuaren gaia... beste mugarri bat 2003koa izan zen, Ofelia Hernandezen hilketak. Hortik sortu genuen Andereak. Euskararen militantziari dagokionez, antzera. Gau eskola batean hasi ginen euskara irakasten, klandestinitatean. Jesuiten ikasgelan egiten genituen klaseak. Gauzak asko hobetu dira ordutik.

Zerk ematen dizue militatzen jarraitzeko indarra?

A.E.E.: Beti dago zoezer, arazoren bat. Emakumeei dagokionez, begira zenbat arazo dagoen. Euskal



presoei dagokienez ere, begira zenbat arazo dagoen. Egin bako gauza asko dago.

M.B.L.: Militantzia ez da sakrifizioa bakarrik. Militantziak laguntasun eta poztasun handia ematen du. Nire lagunak hurbilenak militantziakoak dira, arlo batekoak zein besteakoak. Sortzen den konplizitate horrek energia ematen du. Nik zahar berba aldarrikatzen dut.

Zaharra izatea eta gauzak egiteko gogoia izatea garrantzitsua da. Zahar asko aspertuta eta baztertuta ikusten ditut. Nik neuk baditut indarra eta osasuna. Eta badago zeregina gizartearen orekatzeko. Neurri batean, amets horiek beteko ditudan itxaropena dut.

Zelako pregoia izango da?

A.E.E.: Laburtzera. Gure mezua erasoaren kontrako izango da. Eraserik

ez! Durangoko jaiak denontzat onak izatea ere opatuko dugu.

M.B.L.: Txupina bota eta gero egingo dudana lehenengo gauza jendea besarkatzea izango da. Artopilak, marmitako txapelketan egongo gara, adinduen bazkarian. Kriskitin dantza taldeagaz bazkaria, mo-zorro eguna, erromerietan dantza egin, Zea Maysen kontzertua ikusi... Gauza asko dut buruan.

DURANGO MARGOAK **MONTÓ** **La Pajarito**

VENTA DE PINTURAS **BOVINQ**

Askatasun Etorbidea, 9 DURANGO | Telf. 94 640 88 20
info@durangomargoak.com | www.durangomargoak.com

LOTERIAK PRENTSA **barik**

IKERFER

Ermodo, 25 behea Durango
Tel.: 946 810 566

ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

UNAI GARAY

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

ALKI

decoración y reformas integrales

Mikeldi 6 Durango (Bizkaia)
www.interioresalki.com
alki@interioresalki.com
94 681 38 95 - 679 097 744

DURANGOKO TXOSNAK • A. M.

Urte biko etenaldiaren ondoren, Durangoko jaietako gunerik garrantzitsuenetarikoa den txosnagunea bueltatuko da; 2018an eta 2019an lez, aurten ere Landako Gunearen inguruetan ipiniko dituzte gunea osatzen duten zortzi txosnak, sukaldea, karpa bi eta eszenatoki biak. Urtero lez, jai egitarau parte hartzailea, herrikoia eta euskara nagusi duena prestatzen ahalegindu dira. Txosna Batzordeak urriaren 11n hasiko ditu Durangoko jaiak, 20:30ean, Bilgune Feministak irakurriko duen pregoiagaz eta osteko txupinagaz. Bilgune Feministak hogeituro urteko jarduna bete du aurten. Jarraian, Durangaldeko lau taldek joko dute kontzertua: Konorte, Parkatu, Laru eta Penny Fleck taldeek.

Urriaren 12an, lehenengoz, txosnaguneko irudia den Pantxiketik eta Patxikotxuk elkarregaz egingo dute kalejira Durangoko udaletxe-raino. 18:30ean irtengo dira erakundeak egingo duen txupinazo lekuraino. Gauean, disko jartzaile "maratoi herritarra" egingo dute txosnagunean. Urriaren 13ko ekitaldi nagusiak Eixuren azoka, ohiko paella txapelketa eta arratsaldeko erreka jaitsiera izango dira; Tabiratik behera, bertaraten direnek Mañaria erreka garbituko dute. Urriaren 14an, ekitaldi kul-

Euskara nagusi duen egitarau parte hartzaile eta herrikoia dakar Durangoko Txosna Batzordeak

Martitzenean emango diete hasiera jaiak; aurten hogeituro urte bete dituen Bilgune Feministak irakurriko du pregoia



Txosna Batzordeko egitarauaren aurkezpeneko argazkia.

tural bi emango dituzte txosnagunean. Alde batetik, Leire Vargas durangarrak parte hartzen duen ekitaldi honetan. Bestetik, Añube, Vulk eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek kontzertua emango dute

eta Haizea Aranak ere parte hartzen dute bertsoa oinarri duen ekitaldi honetan. Bestetik, Añube, Vulk eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek kontzertua emango dute

oholtza nagusian. Urriaren 21ean ere musika izango da protagonista nagusia, Peio eta Itsuaren, J Martinaren eta Merina Grisen kontzertuekin.

Gazte bazkaria beteta

Urriaren 15eko Gazte Egunerako ere gogotsu daude herritarrak. Hain zuzen ere, bazkarirako txartel guztiak saldu direla esan dute Txosna Batzordetik; 800 bat lagun batuko dira bertan. Horren ondoren, bingo musikatuagaz entretenituko dira gazteak. Karropoteoagaz herria alaitu eta gero (lehenengo karropoteo transmaribolloa eta ostean gazte karropoteoa), DJak arduratuko dira Landakon egongo direnak dantzan jartzeaz. DJ Hija del Nopal eta DJ Txillardegia egongo dira. Jaietako azken egunean Elkartasun eguna ospatuko dute txosnagunean. Eguerdian bazkaria egingo dute eta, horrez gainera, mozo-rrotzeko deialdia egin diete herritarrei. Gaia 'Denboraren makina' izango da. Aurten ere, txosnagunea "denentzako espazio segurua" izateko lan egingo duela azaldu zuen batzordeak. Horretarako, protokolo berezi bat ondu dute, eta aurreratu dute ez dutela inolako eraso sexistarik, arrazistarik edo LGBTBI+foborik onartuko jaietan.

DURANGOKO JAIAK 2022

<p>URRIAK 11 MARTITZENA</p> <p>20:00 / KALEJIRA Santanatik txosnagunera</p> <p>20:30 / TXUPINAZOA Txosnagunean</p> <p>22:00 / KONTZERTUAK</p> <p>KONORTE PARKATU PENNY FLECK LARU</p>	<p>URRIAK 14 BARIKUA</p> <p>20:00 / IKUSKIZUNA eRRe. Aldarri bat bertsoz.</p> <p>22:00 / KONTZERTUAK</p> <p>AÑUBE VULK LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS</p>	<p>URRIAK 21 BARIKUA</p> <p>19:00 / TORTILLA TXAPELKETA 20:30 / SARI BANAKETA</p> <p>22:00 / KONTZERTUAK</p> <p>PEIO ETA ITSUA J MARTINA MERINA GRIS</p>
<p>URRIAK 12 EGUAZTENA</p> <p>18:30 / Pantxike eta Patxikotxuren jaitsiera udaletxeko txupinazoraino</p> <p>22:00 / DJ MARATOI HERRIKOIA</p>	<p>URRIAK 15 ZAPATUA GAZTE EGUNA</p> <p>11:30-12:30 / KAMISETA BANAKETA Hainbat puntutan</p> <p>12:00 / TRIKIPOTEOA eta pintza jolas herrikoia Santanatik Txosnagunera</p> <p>14:30 / GAZTE BAZKARIA</p> <p>16:30 / BINGO MUSIKATUA</p> <p>18:00 / KARROPOTEOA Karropoteo transmaribolloa Pinondotik</p> <p>19:30 / KARROPOTEOA Gazte karropoteoa Txosnagunetik</p> <p>22:00 / DJak</p> <p>DJ HIJA DEL NOPAL DJ TXILLARDEGI</p>	<p>URRIAK 22 ZAPATUA MOZORRO ETA ELKARTASUN EGUNA</p> <p>Gaia: DENBORAREN MAKINA</p> <p>14:30 / ELKARTASUN BAZKARIA Txartelak: Mesoi Barrian eta Intxaurren</p> <p>Ondoren / ELKARTASUN ARGAZKIA</p> <p>18:30 / KALEJIRA Kalejira DJ REIMYrekin Txosnagunetik</p> <p>22:00 / DJak</p> <p>DJ REIMY BEÑAT ETA MAIXA</p> <p>EZ DA INOLAKO JARRERA EDO ERASO SEXISTA LGTBIQ+FOBIKO ZEIN ARRAZISTARIK ONARTUKO.</p>
<p>URRIAK 13 EGUENA</p> <p>10:30 / EIXU AZOKA Artisau eta sortzaileen azoka, Segundo Trastek girotua.</p> <p>12:00 / JOLASAK Haur eta familientzako Kalaka egurrezko jolasak</p> <p>12:30 / PAELLA TXAPELKETA 14:00 / SARI BANAKETA</p> <p>17:00 / ERREKA JAITSIERA Mañaria erreka jaitsiera Tabiratik</p>		

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Joannah Keenek, Iñigo Larringan 'Moin'-ek, Jon Revilla 'Yuki'-k, Jokin Larreak eta Koldo Zubiak urteak daramatzate musikagintzan; Storm, Arto Bixarra, Dirties, Sermonds, Xaiko eta Kilauea taldeetan ibilitakoak, sarri gurutzatu dituzte euren ibilbideak rock munduan. Oraingoan, baina, elkarregaz sortzeko batu dira. Urte bi inguruko prozesuaren ondoren, 'Secret keeper' diskoa kaleratuko dute egunotan. Ohiko rock doinuak oinarria bes-telako zertzeladekin margoztera ausartu dira oraingo honetan.

Nondik dator Penny Fleck sortzeko gogoa?

Iñigo Larringan 'Moin': Jonek eta biok aspalditik elkar ezagutzen dugu. Kontua da oraingoan nik abesti sorta bat nuela, eta berak grabatzeko gogo handia. *Autopilot* deituriko proiektu baten barruan abesti sorta hori grabatu genuen, baina oraindik ez publikatzea erabaki dugu. Prozesu horretan asko ikasi genuen, eta ikusi genuen beste era batera lan egin zitekeela.

Jon Revilla 'Yuki': Esperientzia lez oso aberatsa izan zen, eta amaitzean beste zeozer egiteko gogo geratu zitzaigun. Sermond's eta Kilauea amaitu eta gero, talderik barik geuden. Jarraian, Puraposegaz zebilen Jokini deitu genion, eta gero Joannahri. Koldogaz osatu genuen boskotea. Segituan egundoko *feelinga* sortu zen gure artean.

I. L.: Taldean halako ilusio bat igartzen da. Bakoitza gustura dago egiten duen ekarpenagaz,

“Aurretik egon garen taldeetan nabariagoak ziren eraginak; hemen gehiago zabaldu gara”

Durungaldeko Penny Fleck boskoteak zuzenean joko du oraintsu kaleratzekoa den 'Secret keeper', Durangoko txosnagunean; urriaren 11n izango da kontzertua, 22:00etan, Konorte, Parkatu eta Laru taldeekin batera



eta prozesu luzea izan arren lortu dugu kantuak gure kabuz grabatzea, zuzenekoak egitea, eta orain diskoa kaleratzea. Ez da erraza izan, ordutegi aldetik oso mugatuta gaudelako, baina lortu dugu. Shinovako Erlantz Prieto arduratu da diskoa nahasteaz; estudioa zabaldu du oraintsu. Bestalde, Estanis Elorza arduratu da masterra egiteaz.

Musikalki melodiek badute pisu bat.

J. R.: Guk biok musika ikusteko modu beretsua dugu, rocka antzera ulertzen dugu. Eskola zaharreko musika dugu gustuko, eta horrek batzen gaitu bostok, gauza gehiago ere gustuko dugun arren. Hain zuzen ere, horixe nabarmenduko nuke, Penny Flecken asko zabaldu dugula aukera sorta.

I. L.: Musikalki ere, bizitzan hain-

bat etapa igaro dugu. Pertsonalki, punk edo oi! doinuetatik rockeroagoak atseginago izatera igaro naiz, baita stoner edo pop doinuak ere, eta Penny Fleck, hain zuzen ere, hori ere badela esango nuke: rocka erdigunean ipinita, eroso sentitu gara sortzerakoan, bes-telako doinuak probatzerakoan. Aurretik egon garen taldeetan esango nuke nabariagoak zirela

eraginak, baina honetan gehiago zabaldu gara esango nuke.

Zein da hemendik aurrerako plana?

J. R.: Hurrengo pausoa diskoa formatu fisikoan ateratzea litzateke. Durangoko kontzerturako prest egon beharko litzateke jada. Jendeak zelan erantzuten duen ikusi gura dugu. Orain artean, gure abestiak zuzenean baino ezin izan dituzte entzun, eta oso harre-ra ona izan dute.

I. L.: Horrez gainera, ahalik eta gehien jo gura dugu, ahal dugun neurrian. Jada ez ditugu hogei urte, eta geroago eta gaxagoa egiten zaigu elkartzea, baina ilusioz beterik gaude. Konpromiso handia dugu taldeagaz, eta zuzenean jo gura dugu, berriro sortzen hasi...

Nondik dator izena?

J. R.: Penny Fleck *Joker* pertsonaiaren ama da, eta, funtsean, adierazi gura duguna da iluntasunak ere baduela bere alde argia.

I. L.: Eta askotan, gainera, alde ilun horretan edertasuna ere badago. Taldearen irudia mika bat da. Zergaitik? Mika animalia superstizioso da hainbat kulturatan. Kultura britainiarrean, esaterako, zazpi mika batera ikusiz gero inoiz kontatu bako sekretuaren jabe izango zara. Diskoaren izena *Secret keeper* denez, lotura borobila iruditu zitzaigun.

MILU'S HOUSE
FAMILY-PLAY-LEARN

ENGLISH PLAY
Ingelesa jolastuz ikasi
2 urtetik aurrera
DURANGO 626 933 614
www.milushouse.com

1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
www.gallastegiharategiak.es

DURANGO

HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA

72,36€
EMAN IZENA - EMAN IZENA

MATRIKULA ZABALIK
Talde presentzialak eta erdi-presentzialak
Zurtagiri Ofiziala
Deutsch - English - Euskara - Français

Zalduasolo, 1. 48200 Durango - 910344011/hizkuntza.es
910 21 90 40 - www.profesores.hizkuntza.es

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162
Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com

• Geure hondakindegia dugu.
• Harrobletako materialen banaketa.
• Obra-hondakinak eta Industriako hondakinak kentzen ditugu.
• Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

Folder

- Enpresa zerbitzua
- Eskolako materiala
- Kontsumibleak
- Informatika osagarriak
- DHL zerbitzua
- Opariak

Zumalakarregi 10 - 48200 Durango - 94 621 73 42
durango@folder.es - www.folderdurango.com

Patxikotxu eta Pantxike elkarregaz egongo dira, lehenengoz, Durangoko San Fausto jaietan urriaren 12ko txupinazoan

Txosnagunean urriaren 11n emango diote hasiera jaiak, eta udalaren txupinazoa urriaren 12an izango da

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaren ondoren, bueltan dira Durangoko San Fausto jaiak. Aurten, gainera, nobedade garrantzitsu bat egongo da: Patxikotxu eta txosnaguneko Pantxike pertsonaiak batera egongo dira urriaren 12ko txupinazoan. Patxikotxuri San Fausto auzoan egingo diote ongietorria, eta Pantxike Landako Gunetik etorriko da. Pantxikek aurreko egunean emango die hasiera Durangoko jaiak, txosnaguneko txupinazoan. Beraz, jaietako pertsonaiak kalejiran eramango dituzte udaltxeko plazaraino, Sugarri fanfareak girotuta.

Durangoko Jai Batzordeak, Txosna Batzordeak eta udal agintariak 175 ekitaldi baino gehiago batu dituzte aurtengo sanfaustoetarako. 2019ko 110ak atzean utzita. Nobedadeen artean, honako hauek nabarmendu daitezke: ekitaldiak herriko auzo guztietara zabalduko dituzte eta txupinazo nagusia Internet bidez

emango dute, irisgarritasun arazoak dituztenak gogoan hartuta; egoitzetan daudenak, adibidez.

Horrez gainera, Durangoko Udaletik erasorik bako jaiak izatea aldarrikatu dute eta Ima Garrastatxu alkateak argi utzi du "ezetza beti ezetza dela". Udalak 10 puntuko dekalogo bat prestatu du aurtengo jaietarako. Bertan, onartezinak diren ekintzak zehaztu ditu, eta erasoen kontrako arreta eta informazio zerbitzua herritarren esku ipini du. "Denen arteko zaintza eta errespetua eskatu gura ditut. Ez beti da ez. Hori dela eta, eraso seixisten eta homofoboek kontrako protokoloa indartu dugu txosnagunegaz elkarlanean", gaineratu du Ima Garrastatxuk. Gainera, 24 orduko arreta eta esku hartze telefonoa ipini dute herritarren eskura: 747 459 584. Udal ordezkariak azaldu dutenez, telefonoa jaiak irauten duten bitartean egongo da operatibo, urriaren 12tik 16ra eta 21etik 23ra.



2019ko Durangoko jaietako txupinazoko argazkia.

24 orduko arreta eta esku hartze telefonoa ipini dute herritarren eskura: 747 459 584

Segurtasuna eta garbiketa

Segurtasunari dagokionez, egunean zehar 11 udaltzain eta gauez 13 arituko direla lanean jakinarazi du Durangoko Udalak. Horrez gainera, udaltzaingoak Er-tzaintzaren laguntza ere izango du. Garbiketako errefortzuari

dagokionez, 2019ko garbiketa zerbitzua baino %50 gehiago egongo dela jakinarazi zuen Ane Aban-zabalegik azken osoko bilkuran. Guztira, 228 langile arituko dira Durangoko kale eta auzoak garbitzen San Fausto jaietan, 24 makinagaz.

Kaixo Durango!



Badator San Fausto!

Herri-kirolak, goitiberak, musika, antzerkia, gastronomia... mila aukera gure kulturaz gozatzeko.

Ondo pasa jaietan!

EROSKI
zurekin

Goitibehera jaitsiera, xake txapelketa eta arte martzialen erakusketa, Durangoko jaietako kirol eskaintzaren barruan

Goitibehera jaitsieragaz, sasoi batean egiten zen ekimena berreskuratuko dute. Hainbat modalitatetan arituko dira eta Euskal Ligarako puntuagarria izango da



Durangoko proba Euskal Ligarako puntuagarria izango da. EHIKF

KIROLA • J.D.

Durangoko aurtengo jaietan, hainbat urtean galduta egon den ekimena berreskuratuko dute: goitibehera jaitsiera. Ekitaldia urriaren 15ean egingo dute, 16:00etan, Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioak (EHIKF) eta udalak elkarlanean antolatuta.

Ibilbideak 500 metroko luzera izango du. Lasterketako irteera Eguzkitza auzoan izango da, Okarantza baserriaren inguruan, eta helmuga Tabira inguruan ipiniko dute, Intxaurren kalean hain zuzen ere. Lasterketak askotariko kategoriak izango ditu: Neumatika, Arinak, Drift Bike eta Errodamen-

tuzkoena. Izen-ematea www.ehikf.eus orrialdean kontsultatu daiteke.

Durangokoa Euskal Ligako seigarren eta azkenengo proba izango da. Idiazabal, Oñatin, Bergaran, Gernikan eta Galdakaon izan dira aurrekoak. Neumatika kategorian, Kolpez Kolpe taldeko Unai Biain da liderra azken hitzor-

duaren atarian. Arinak eta Drift Trike kategorietan, Oscar Salmón eta Oier Ortueta daude, hurrenez hurren, lehenengo postuetan.

Umeei begirako tailerra

Bestalde, egun berean, 11:00etan, umeei zuzenduriko goitibehera tailerra egongo da Intxaurren-

do kalean. "Urte asko dira goitibehera lasterketa Durangon azkenengoz egin zela, eta orain, Euskal Herriko Federazioagaz elkarlanean, ikuskizun eder hau berreskuratuko dugu", adierazi dute udal arduradunek.

Askotariko aukerak

Kirol egitaraua ez da goitibehera txapelketara mugatuko. Bestelako eskaintzak ere badaude; xakea, adibidez. Larrasoloeta xake taldeak lagunarteko xake txapelketaren 36. aldia antolatu du urriaren 22rako. 16:00etan izango da, Ezkurdin. Federatuei zuzenduriko txapelketa da, baina federatu bakoek ere izango dute euren dohainak erakusteko aukera, egun berean beste txapelketa bat egongo da-eta eurentzat, goizean, Ezkurdin. 11:00etan hasiko da eta izen-ematea ordu erdi lehenagotik egin daiteke. Azkenik, beste txapelketa bat ere antolatu dute urriaren 16rako, umeei zuzendurikoa. Goizean izango da.

Horrez gainera, Durango Kirol taldeak atletismo jardunaldia antolatu du urriaren 16rako, eta egun berean Wadon Kan elkar-teak arte martzialen kalejira egingo du Ezkurditik Alde Zaharrera. Erakustaldi bat eginda amaituko dute.

  **DESGUACES PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

☎ Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079
☎ Osagarrien salmenta: 946 201 787
✉ e-mail: desguacespilastra@gmail.com
📍 Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

Bizitza zoragarria da atseden hartuz gero.

Zure gureni ezartutako owl itongo gaitza.

bed's koltxoak - denda
Albuz 1, Durango
T. 941 005 980



KOLTZOIAK | OHE-DINARRIAK | BURKIAK | OHEKO ARROPA



AMALUR ASEGURUAK, S.L.
amalur.asegurua@agencia.axa.es
www.amalur.agenciaaxa.es

AXA DURANGO KURUTZIAGA
Kurutzaga, 26 DURANGO
94 681 60 22 / 94 658 47 03
688 60 12 30



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOPEDIATRIA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA

Ondo pasa San Faustotara!



"Gogotsu gaude jaien hasierarako, baina tentsioa ere badugu; txupinazoa tabernaren pare-parean izango dugu"

Jon Biotak Amalur 2 taberna zabaldu berri du Barrenkalen. Alde Zaharrean lehenengoz lan egingo du tabernari legez

OSTALARITZA • JONE GUENETXEA

Jon Biota Undagoitia tabernaria (Durango, 1983) Durangoko jaietako prestaketetan dabil. Udaletxe aurrean Amalur 2 taberna zabaldu du eta tabernari legez San Faustetan Alde Zaharrean lan egiten duen lehenengo aldia izango da. Hornitzaileak aurrera eta atzera dabilzan bitartean erantzun die elkarriketako galderari.

Noiz zabaldu duzu Amalur 2?

Taberna urte hasieran hartu genuen eta konponketak egiten hasi ginen: margotu eta horrelakoak. Maiatz erdialdean zabaldu genituen ateak. Beraz, hasiberriak gara eta ikasten gabilta.

Zelan doa?

Murueta Torren beste taberna bat daukat eta hau ezberdina da. Egunak pasatu ahala moldatzen ari gara.

Badatoz jaiak, eta Alde Zaharreko erdigunean zaudete. Txupinazoaren unean jendez beterik egongo da ingurua.

Jaietan, Murueta Torreko tabernan ez da hainbesteko jendetzarik egoten, baina Alde Zaharrean bai. Jaietan jendea Alde Zaharrera etortzen da gehienbat. Aurreikuspenak onak dira, baina ez dakiguzer gertatuko den. Prestaketetan gabilta. Uste dut gauez lan gu-

Erronka bat nabarmenduko nuke: ostalari denok elkartzea. Txiki batek ez du askorik egingo, baina denok batera joanda errazagoa izango litzateke

txiango egingo dugula, baina goizak eta arratsaldeak jendetsuak izan daitezke. Igartzen da aurten jendea gogotsu dagoela jaietarako. Gu ere gogotsu gaude, baina tentsioa ere badugu; txupinazoa

tabernaren pare-parean izango dugu. Aurten jaietako asko izango dira jarraian. Urriaren 11n txupinazoa botako dute txosnetan, eta gero jaietako mordoa dator bata bestearen atzetik.

Barrarako txandak egitea ez da erraza izango. Zelan egingo duzue?

Kosta egiten da, baina beheko tabernako lantaldeagaz konponduko gara taberna bietan. Bestela, laguntza eskatuko dugu.

Zein ezberdintasun dago Murueta Torren eta Alde Zaharrean taberna izatearen artean?

Murueta Torrekoa auzoko taberna bat da. Amalur 2 Alde Zaha-

rean egonda, martxa handiagoa du.

Kokapenaren arabera, taberna bakoitzak bezero mota ezberdina dauka?

Murueta Torrekoa bezero familiarra da. Auzoa zahartuta egon da, baina orain bikote gazte asko etorri da umeekin. Han ez dabil autorik, eta belartza dagoenez, lasai ibili daitezke jolasten. Alde Zaharrean, bezeroen profila gazteago eta nagusiagoa da.

Ez gaude Goienkalen. Barrenkalen arratsalde- iluntze partean ondo lan egiten da, baina gauez ez jaietatik kanpora

Tabernari izatearena familiatik datorrizu.

Gurasoek orain 40 bat urte zabaldu zuten Murueta Torreko Amalur taberna. Azken 15 urtean eurekin lan egin dut. Orain hi-

zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitetz.eus

Jesuitak

jazz solutions

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza
barne diseinua
kudeaketa bisuala
lan guneak

Durango Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

R.E.A.:15/48/0017067
K.Z.: 0544-BI

TABIRA COLOR

AHOLKULARITZA PROFESIONALA

BERRIKUNTZAK DITUGU

AZKEN BELAUNALDIKO PINTURETAN, PINTURA EKOLOGIKOETAN, ORBANEN KONTRAKO PINTURETAN

Erakinen isolamendu termikoa eta energia-efizientzia

ZERBAIT MARGOTU BEHAR BADUZU, ETORRI BISITANI!

Monterretas Ind. 9-F Pab. DURANGO / Tel.: 946 217 911

ANELAN

LAN BERTIKALAK / TRABAJOS VERTICALES

FATKADA ETA PATOEN BINGATZEAK
ZELATUEN MANTENIMENDUA
BIZI BIDEAN (LINEAS DE VIDA)
LENDEN GARBIZTAN

946 215 404
info@anelan.es

BETU ETA GALDETU KONPROMISURIK GABE

Poinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bitaio

ZURE txokoa

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIURIA

888 864 975
info@zuretxokoa.com

www.zuretxokoa.com

ru-lau urte, behin eurak jubilatuta, neuk hartu nuen tabernaren ardura.

Esaten da ostalaritzaren ikuspuntutik gauak galdu egin direla jaietatik kanpora.

Ni ez nago Goienkalen. Barrenkalen ezberdina da. Hemen arratsalde-iluntze partean ondo lan egiten da, baina gauaz ez jaietatik kanpora.

Zelan pintxopotea?

Eguenetan jende nahikotxo ibiltzen da. Barikuetan ere bai.

Durangoko ostalaritzak zein erronka dituela esango zenuke?

Erronka bat nabarmenduko nuke: denok elkartzea. Ulertzen dut Dendak Bai elkarte hor dagoela eta ostalaritzako arlo bat duela. Badakit Alde Zaharrekoak eta beste inguruetakoa ostalariak batzea gaxa dela, baina onurak izango lituzke denontzat. Denon artean zeozer eskatuz gero, indar handiagoa izango genuke. Txiki batek ez du askorik egingo, baina denok batera joanda errazagoa izango litzateke.



Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango
94 681 22 04
info@tabiraberezi.com
www.tabiraberezi.com



Etxeko berezitasunak: gildak, pintxoak eta bermutak.

Muruetatorre auzunean Amalur 1
eta Barrenkalen Amalur 2
692 150 199



MARKIEGI
ELEKTRIZITATEA ETA ARGIZTAPENA
Tabira 3, 48200 Durango
e-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com
946 203 520



leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

“Izurriaren osteko gazte belaunaldia kale eske dator; asko hurbiltzen dira txaranga girora”

Durangoko jaiak ezin dira ulertu Sugarri fanfarrea barik, herriko txaranga barik. Taldeak 45 urteko ibilbidea bete du



TXARANGA • EKAITZ HERRERA

Sugarriko Cristobal Asla Lastrak (Portugalete, 1962) taldearen inguruko galderei erantzun die. 22 urte daramatza Sugarri. Normalean

tronboia jotzen du, baina baita bombardinoa eta helikoia ere.

Durangoko jaietan lau emanaldi izango dituzue. Prest zaudete?

Indarra soberan dugu! Bai, oso gogotsu gaude. Udal egitarauko saio bi, Kale Kantoi tabernarako beste bat eta kuadrilla batentzako beste bat egingo ditugu.

Zer esango zenieke Durangoko jaietan zuekin batuko direnei?

Gugaz ondo pasatuko dutela, eta eskatu diezazkigutela kantak. Azkenaldian, gazte asko hurbiltzen zaigula igarri dugu. Maite dute kaleko txaranga giro hori. Izurriaren osteko gazte belaunaldia kale eske dator. Asko hurbiltzen dira txaranga girora.

Zein da txaranga batek jai giroari egiten dion ekarpena?

Txarangak musika kaleratzen du. Musika kalean dauden herritarren artera zabaltzen du, euren ondo-ondora eramanda. Ez dago ezelako tranparik. Musika zuzena da. Txarangek oso erreperitorio zabala izaten dute. Kalejiretarako aproposa, kuadrilla giroan murgiltzeko aproposa. Gaur egungo abesti arrakastatsuak, musika dantzagarriagoa,... denerik jotzen dugu.

Elorrioko jaietan, Gasteizkoetan, Nafarroako hainbat herritan... saio asko izaten duzue.

Bai, emanaldi asko dugu urtean. Normalean errege kabalkadagaz

edo danborradagaz hasten dugu urtea. Hortik aurrera, Tolosako inauterietan hiru egunez, Lau-dioko San Prudentzio jaietan, Ourenseko herri bateko jaietan, Zornotzan, Bilbon, San Ferminetako bederatzik egunetan zein Gasteizko jai egun guztietan egoten gara. Urtea Elorrioko jaietan, Basaurin eta Durangon amaitzen dugu.

Urtean zenbat emanaldi izaten duzue?

60tik 80ra bitartean,

Orain dela gutxi, Sugarrik 45 urte bete ditu. Talde beteranoa dela esan daiteke.

Sugarri Durangoko Musika Bandako kide batzuek sortu zuten. Bandako kontzertuak amaitu eta gero, taldeko kide batzuk tabernetan elkartu eta musika jotzen hasi ziren, arrazoi berezirik barik, jaiak aurrera egin zezan. Horrela sortu zen taldea, hamabost bat kidegaz hasieran. Gero, lagunak zein familiarak kideak batuta, taldea trinkotu egin zen. Ni, adibidez, 2000n ailegatu nintzen. Hor transformazio bat egin genuen. Taldea finkatu genuen, gutxieneko musika tresna batzuekin, erreperitorio landuago batez. Profesionalizatu egin ginen, zelanbait. Urte hauetan guztietan, taldekide batzuk gorabehera, betikoak gaude. Bakoitzak bere bizimodua eta bere lana du, baina talde honetan elkartzen gara gero.

22 ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA BERRIA

BIGARREN FASEKO DENA SALDUTA.
HURRENGO HILETAN HIRUGARREN
FASEA HASIKO DUGU.
DEITU INFORMAZIOA JASOTZEKO

3.FASEA
OLALDE BARRI



ERTZAIN ETXEAREN ONDOKO BIRIBILGUNEAREN
ALBOAN. KURUTZIAGA ONDOAN, DURANGON.



946 814 495
618 068 747
650 397 007

KARTELA • J.G.

Aurtengo jaiak iragartzen dituen kartela Jaime Gubians Escudék diseinatu du. Navàs (Herralde Katalanak) herritik Durangoko elementu nagusiak batu gura izan ditu.

Zelan hartu zenuen albistea kartel lehiaketaren irabazlea zarela esan zizutenean?

Poz eta ilusio handiagaz. Gainera, jendearen botoei eskerrak irabaztea gatxa izaten da.

Zer mezu transmititu gura izan duzu kartel hau diseinatzeko orduan?

Oinarrizkoa ematen duen arren, Durangoko jaiak azaltzea izan zen asmoa kartela planteatu nuen. Denok joaten gara jaietara, eta jaiak pertsonentzat dira. Horregaitik, jaietako elementuen

Kartelen bitartez, zelakoak garen eta jaietan zer ospatzen dugun azaldu gura izaten dut

artean, erdigunean, Pantxike eta Patxikotxu daude, eta baita jendea ere. Aurten Pantxike eta Patxikotxu lehenengoz batera joango direnez, kartelerako elementu azpimarragarria iruditu zitzaidan. Gizartea aurrera doa eta etorkizunera

"Aurten Pantxike eta Patxikotxu lehenengoz batera joango direnez, kartelerako elementu azpimarragarria iruditu zitzaidan"

begiratzeko beste modu bat da. Tradizioa etorkizunera proiektatzen dugu. Beste jaietatik berezi egiten gaituzten elementuak ere agertzen dira: Mikeldiko idoloa, elizak, udaletxea, Santa Anako arku...

Jaietako hainbat kartel diseinatu duzu. Zerk bultzatuta?

Herri kultura gustuko dut, eta jai bakoitzak bere komunitatea islatzen du. Ni ilustratzailea naizenez, margotzea gustatzen zaidanez, nire ikuspuntu pertsonala ematea gustatzen zait.

Noiztik zabilta diseinu grafikoan lanean?

Diseinu Grafikoa ikasi nuen, orain 25 urte, Bartzelonan, eta estudio batean lanean hasi nintzen. Gero, nire kontura lanean hasi nintzen eta ilustrazioaren munduan nabil batez ere, Santillana, Edebe eta horrelako argitaletxeentzat. Kartelei dagokienez, nire lana asko gustatzen zaidanez, diseinu grafikoa eta ilustrazioa uztartzen ditut.



Arupa San Faustoak!!!

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea
48215, Iurreta



'Requiem por un campesino español'

ANTZERKIA **Berriz :: Urriak 8**

Ramon J. Senderren obra unibertsala ikusgai, Berrizen

1937ko udan giroturiko obra ekarriko du Teatro Che Y Moche konpainiak asteburuan Berrizera: *Requiem por un campesino español*. Urtebete igaro da Paco el del Molino hil zenetik, eta bataiatu, ezkondu eta muturreko adiskidetzaren eman zion abadea, Mosen Millan, requiem meza ematen dabil gaur mutikoaren arimaren alde. Ordubete pasatxo falta da meza hasteko eta abade zaharra,

sakristauagaz batera, senide eta lagunak noiz etorriko zain dago. Hori du ardatz zapatuan, urriaren 8an, Berrizko kultur etxean taularatuko duten antzezlanak. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da.

Ramon J. Senderren obra unibertsalaren egokitzapena da *Requiem por un campesino español*; Alfonso Plouk egokituriko lana da, Aragoiko autorearen jaiotzaren 120. urteurrenean.

aurkituriko margoen irudiak azalduko dituzte Diego Garate Maidaganek eta Joseba Ríos Garaizarrek. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan antolaturiko ekitaldia.

ZORNOTZA masterclas Pump Track masterclassak, 10:00etatik 12:15era (hastapen maila) eta 12:30etik 14:15era (maila aurreratua), Pump Track pistan.

Urriaren 9an

ATXONDO azoka Artisautza azoka + DJ Victor, 10:30etik 15:00etara, Arrazolako Amillena bentan.

DURANGO antzerkia 'Muna' (Ganso&Cia), 18:00etan, San Agustin Kulturgunean.

ELORRIO bisita 'Elorrioko Oinatzak' bisita gidatua (gaztelaniaz), 11:00etan, San Agustin auzoan (hoteleko aparkalekuan), Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Erreserba egin behar da honako telefono zenbakietara deituta: 94 682 01 64 / 688 776 270. Bestela, turismoa@elorrio.eus helbide elektronikora idatzi daiteke.

IURRETA bisita Patxikobaso baserrira bisita gidatua, 11:00etan. Ortua bisitatu eta baserrian egiten duten ogiaren ekoizpena gertutik ezagutzeko aukera egongo da bisitan, dastatze eta guzti. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Urriaren 7an

DURANGO berbaldia 'Mujeres, salud y ciencia ¿perjudica la medicina la salud de las mujeres?' (Hizlaria: Amaia Bacigalupe EHUko soziologoa), 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO antzerkia 'La verdadera historia de Francisco Franco' (Spectare konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZALDIBAR ipuin kontalaria: 'Abentura zirrargarria', (Perli eta Koxkolo), 17:00etan (3-5 urtekoak) eta 17:30ean (6-9 urtekoak), Udal Liburutegian.

Urriaren 8an

ATXONDO musika Olinda, 19:30ean, Arrazolako Amillena bentan.

ABADIÑO antzerkia 'Martina's Palace' (Juego de Damas), 19:00etan, Errota kultur etxean.

ABADIÑO jardunaldia Loratzen II: 'Osasun mentala existitzen da' jardunaldia. Osasun mentala ikustaraztea helburu hartuta, pankarta apainduko dute, 12:30ean, Traña-Matienako Pino plazan. **Bazkaria**, 14:00etan, Taberna Zarran. **Mahai-ingurua**, 17:00etan. Testigantzak + Enetu psikologia eta hezkuntza.

Poemen errezitaldia, Aida Gomezekin, 18:00etan. **Kontzertua: Insömnia taldea**, 18:30ean.

BERRIZ musika Ezta Ilen + Ainke, 21:30ean, Hiltegi gaztetxean.

DURANGO antzerkia 'Muna' (Ganso&Cia), 18:00etan, San Agustin Kulturgunean.

ELORRIO bisita 'Elorrioko Oinatzak' bisita gidatua, 11:00etan, San Agustin auzoan (hoteleko aparkalekuan). Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Erreserba egin behar da honako telefono zenbakietara deituta: 94 682 01 64 / 688 776 270. Bestela, turismoa@elorrio.eus helbide elektronikora idatzi daiteke.

IURRETA erakustaldia Senegalgo And Bolo elkarteak antolaturiko kultur erakustaldia, Askondon. **Berbaldia eta Senegalgo jantzi tipikoen eta osagarrien erakusketa**, 17:00etan. **Dantza tradizionalak**, 18:00etan. **Trentzen tailerra**, 19:00etan. **Senegalgo jakien dastatzea**, 19:45ean.

MAÑARIA bisita 'Askondoko zaldi gorriak', 11:00etan, Angurreta Harrobia kultur espazioan. Víctor Arrizabalaga eskultoreak bisita gidatua egingo du, eta gero, Mañariko Askondo kobazuloan

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **La vida padre**
barikua 7: 19:30
domeka 9: 19:30

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **En los márgenes**
barikua 7: 18:30/21:00
zapateria 8: 19:30
domeka 9: 19:30
astelehena 10: 18:00 / 20:15
martitzena 11: 18:00 / 20:15
eguztzena 12: 19:00 / 20:15

• **Los renglones torcidos de Dios**

barikua 7: 19:30
zapateria 8: 17:00/19:30
domeka 9: 17:00/19:30
astelehena 10: 19:00
martitzena 11: 19:00
eguztzena 12: 19:00

• **El vasco**

barikua 7: 18:30 / 21:00
zapateria 8: 17:15 / 20:00
domeka 9: 17:15 / 20:00
astelehena 10: 18:00 / 20:15
martitzena 11: 18:00 / 20:15
eguztzena 12: 18:00 / 20:15

• **Boonie Bears: parque salvaje**

zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Ali & Ava**
zapateria 8: 20:00
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 20:00

• **Minions: El origen de Gru**
domeka 9: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Black is Beltza II: Ainhoa**
barikua 7: 20:00
zapateria 8: 20:00
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 20:15

• **Los BuscaMundos**
zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17_00

• **Un amor intranquilo**
martitzena 11: 20:15

Ganso&Cia konpainiak bere azken lana aurkeztuko du asteburuan: 'Muna'

'Muna' antzezlanaren emanaldi bi egingo dituzte asteburuan, zapatuan eta domekan



ANTZERKIA • A. M.

Ganso & Cia konpainiak emanaldi bikoitz batez estreinatuko du bere lan berria: *Muna*. Bereziki umeentzat prestatutako lana dela azaldu dute sortzaileek, eta 2tik 6 urtera arteko ikusleentzat gomendatzen dute. *Muna*, Cecilia Paganinik antzeztua, lurpean bizi den pertsona bat da. Basoko animaliak lez bizi da, libre; naufragoa bere uhartean lez, goizero dabil bere irlan ahazturiko altxorren bila. Egun batean, baina, ilargira igotzeko modua bilatzea bihurtzen da bere eguneroko motorra. Lan honetan, protagonistek ohiko klown teknikak darabiltzate, mi-

moz egindako lanari bestelako ikuspuntu bat gehituz. Cecilia Paganini sartu da Munaren aza-

Cecilia Paganini da Muna protagonista, eta Txefo Rodríguezek eskainiko du zuzeneko musika

lean, eta zuzeneko musikaz Txefo Rodríguez arduratu da; Gorka Gansoren zuzendaritzapean lan egin dute biek.

Ganso & Cia konpainia 2007an sortu zuten eta, aurrekoetan lez, San Agustin kultur gunean garatu

dute lan honen erresidentzia artistikoa. Asteburuko estreinaldi bikoitza San Agustin kultur gunean izango da, 18:00etan. Ikusleek 4 euroan erosi ditzakete sarrerak.

Latsarriak: emakumeen ahotsa

Bestalde, gaur, barikua, Nerea Gastonen *Latsarriak: emakumeen ahotsa* erakusketa inauguratuko dute Durangoko Arte eta Historia museoan; Karrika antzerki taldeak performancea prestatu du ate irekiera ekitaldirako; 18:00etan izango da. Horrez gainera, ber-baldi sorta egingo dute museoan. Besteak beste, Mariefi Perezek eta Isabel Mellenek.

Aitor Bizkarra Txapelketa Nagusiko finalerdien bila

Domekan Lizarrako Los Llanos kulturgunean izango da lehenengo faseko azken kanporaketa, 17:00etan

BERTSOLARITZA • A. M.

Asteburuan erabakita geratuko da Txapelketa Nagusiko finalerdietan zein bertsolarik parte hartuko duten. Aitor Bizkarra bertsolari abadiñarrak domekan izango du filanalaurrekoetan sartzeko aukera, Lizarrako (Nafarroa) kanporaketan. Bere lehenengo Txapelketa Nagusia du Aitor Bizkarra abadiñarrak. Hemeretzi bertsolari sailkatuko dira finalaurrekoetara; horietariko sei euren saioak irabazita, eta gainerakoak puntuazioaren arabera. Gero, zazpi finalaurreko saio egongo dira, urriaren 22tik abenduaren 3ra bitartean, itzuli bitan banatuta. Lehenengo itzuliko azken saioa

Durangon egingo dute, azaroaren 12an. Landako Gunean izango da saioa, 17:00etan. Bertan, Aitor Mendiluzek eta Beñat Gaztelumendik ere kantatuko dute, aurreko Txapelketa Nagusian finalistak izanda horretarako txartela lortuta. Txapelketa Nagusiko finala Iruñean izango da, Nafarroa Arenan, abenduaren 18an. Azken txapelketako txapel-duna izanda, Maialen Lujanbiok zuzenean lortu zuen finalerako txartela.

Gorka Pagonabarraga durangarrak eta Miren Amuriza berriz-tarrak Arrasateko kanporaketan egin zuten bertsotan, baina aukera gutxi dute aurrera egiteko.



Aitor Bizkarra, artxiboko irudi batean.

Gai librean

Bost urteren ondoren

Orain dela bost urte Chris Froomek bere azken Frantziako Tourra irabazi zuen. Orain dela bost urte Europar Batasunetik joatea onartu zuen Erresuma Batuko parlamentuak. Orain dela bost urte Katalunian erreferenduma egin zuten. Orain dela bost urte Berri Txarrak bere azken diskoa argitaratu zuen. Orain dela bost urte ETArean armagabetzea gauzatu zen. Eta orain dela bost urte izan zen azken Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Bost urteotan gauzak ikaragarri aldatu dira, edo sentazio hori dut behintzat. Tira, denontzat ez hainbeste, Igor Elortzak orain dela bost urte Kargak eta Deskargak taldeagaz bira egin zuen, eta orain disko bat aterako du (anonimo popularra bera zela ez zekienari barkamena eskatzen diot, 'spoilerra' egiteagatik). Baina hari ere heldu zitzaion txapelketari agur esateko garaia. Eta bost urtean



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

Bost urtean bertsolari asko izan dira pauso bat albora eman dutenak eta txapelketaren biderei agur esan diotenak

bertsolari asko izan dira pauso bat albora eman dutenak eta txapelketen biderei agur esan diotenak. Horren ifrentzua aurpegi berriak ditugula Txapelketa Nagusian, eta bi Durangaldekoak.

Pena hartu genuen txapelketaren lehenengo asteburuan. Gorka Pagonabarraga debutariak eta Miren Amurizak ez zuten euren eman, eta finalerdietara sailkatzeko aukerak ihes egin die. Durangaldeko hirugarrena Aitor Bizkarra da, beste aurpegi berria. Domekan izango du bere txanda. Aurrera egiteko aukerak ditu, baina txapelketan pausoak helduleku finko bati heldu-

ta eman behar dira badaezpada; edozer gerta daiteke, alegia.

Gureez gainera, badago aurpegi berri eta ez hain berririk, zeresana emango dutena. Ane Labaka, Joanes Illarregi, Saioa Alkaiza eta Nerea Ibarzabal, esaterako. Bizkaiko txapelkunak saio handia egin zuen joan zen zapatuan Gotaine-Irabarnen (Zuberoa). Finalerdietan dago jada, eta oraindino gauza asko esateko dituela pentsatzen dut. Ikusiko dugu Nafarroa Arenara (Iruñea) ailegatuko den ala ez. Bertan beste istorio bat izango da. BEC atzean utzita, ia 14.000 pertsona egongo dira txapelkun berriaren zain. Faborittoa nor den badakigu, baina auskalo, helduleku finkorik ez baita nahikoa izango txapelerako pausoa emateko, eta badakizue, edozer gerta daiteke. Porrak egiten txarra naiz, baina nik gaurdanik diot: bizkaitar bat gutxienez finalean egongo da, eta... argi ibili.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Hilabete kanporaketa faseak jokatu eta gero, bariku honetan 35. Cafés Baqué pilota txapelketako finalak jokatu dituzte Iurretako Kepa Arroitauregi pilotalekuan. 19:00etan kadeteetakoa hasiko da, Oier Ibarluzearen eta Daniel Sanchezen artean. Horren ondoren, gazteen finala jokatu dute Lazkaoko Lapke elkartean dabilen Faben Ituarte atxondarrak eta Azpeitiko Ilunpe elkarteko Eneko Odriozolak.

Finaletan ez dago faborito argirik. Ituartek edozeini irabazteko moduko kolpea du, bai botez bai airez, eta badaki tantoa amaitzen, baina Odriozola ere dohain handiko mutila da. Kadeteetan, final bietako nafar bakarrak parte hartu du: Iruñeko Oberena klubeko Daniel Sanchezek. Lazkaoko klubeko Oier Ibarluzea izango du aurkari, eta adituek ez dute faborito argirik ikusten.

Txapelketari bultzada

35 urte joan dira txapelketa lehenengoz antolatu zenetik. Hamarkada bitan afizionatuetako erreferenteetariko bat izan zen eta Euskal Herri osotik etortzen ziren pilotariak. Pilota enprestatoko ordezkariak ohikoak ziren, eskualdeko pilotalekuan pilotari gazteei jarraipena egiteko. Gerora, hasierako oihartzun hori galdu zuen eta Bizkaiko pilotarietara mugatu zen. Horrela aritu izan dira hainbat urtez.

Aurten, Bizkaiko pilota federazioak eta bere laguntzaileek —Cafés Baqué enpresa eta Iurre-

Iurretako pilotalekuak Cafés Baqué pilota txapelketa biziberrituaren finalak hartuko ditu gaur

Aspaldiko partez, gazterik eta kadeterik onenak aritu dira lehian; Faben Ituarte atxondarrak gazteetako finala jokatu du



Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako txapeldun eta txapeldunordeak eta Bizkaiko zortzi pilotaririk onenak aritu dira lehian. **BIZKAIKO PILOTA FEDERAZIOA**

tako, Abadiñoko eta Mañariko udalak— txapelketa biziberritu gura izan dute. Horrela, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako txapeldunak eta azpitxapeldunak gonbidatu dituzte. Eurekin batera, Bizkaiko

Enaitz Olaeta: "Berriro ere pilotari gazteentzako txapelketa erreferente bihurtu gura dugu"

zortzi pilotaririk onenak aritu dira. "Balorazio positiboa egiten dugu. Pilotariak gustura aritu dira eta hurrengo aldietara begira berriro ere pilotari gazteentzako txapelketa erreferente bihurtu gura dugu apurka, Diario Vasco,

Biharko Izarrak edo beste txapelketa batzuk diren moduan. Datorren urtean, bide beretik lanean jarraituko dugu", adierazi du Bizkaiko Pilota Federazioko presidentea den Enaitz Olaetak finalen aurkezpenean.

Sapubike mendi bizikleta martxa bueltan dator domekan, 30 kilometroko ibilbideagaz

Pandemia osteko lehenengo martxa izango da; antolatzaileek 30 kilometro eta 1.200 metroko desnibela dituen ibilbidea prestatu dute parte hartzera animatzen direnentzat



MENDI BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

Domeka honetan, pandemia osteko lehenengo Sapubike mendi bizikleta martxa egingo du Durango MTB klubak. Aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da. Txirrindulariak Durangoko Pagarri kalean dagoen Otamotzena parketik irtengo dira, 09:00etan. Ibilbideak 30 kilometro ditu, 1.200 metroko desnibelagaz.

Proban zehar anoa gune bat egongo da eta parte hartzaileek probako kamiseta bana jasoko dute opari martxaren amaieran, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Aurretik izena emateko epea gaur amaituko da. Parte hartzaileen kopurua betetzen ez bada, martxa egunean bertan ere eman ahalko da izena (20 euro), 07:30etik aurrera.

2012an hasi ziren martxa antolatzen. Aurtengoa bederatzigarren aldia izango da.

Aitor Ajuria eta Ibai Cebrian Euskadiko txapeldun geratu dira kilometro bertikalean

Arrazolako probak 200 partaidetik gora batu zituen



Aitor Ajuria ezkerrean eta Ibai Cebrian eskuman, Anboto Kilometro Bertikalean.

MENDI LASTERKETA • J.D.

Joan zen asteburuan Anboto Kilometro Bertikala lehiatu zuten Atxondon. Euskadiko txapelak egon ziren jokoan eta euretariko bi eskualdean geratu ziren. Gizonen maila absolutuan Aitor Ajuria

otxandiarra izan zen txapelduna, eta juniorretan Ibai Cebrian durangarra. Horrez gainera, Oihana Azkorbebeitia abadiñarra azpitxapeldun geratu zen emakumeen maila absolutuan, eta txapeldun beteranoetan.

Abadiñoako Sokatira Taldeko gazteak "esperientzia zoragarriekin" bueltatu dira Herbehereetako munduko txapelketatik

Oso gazteak dira denak, 17tik 23 urtera artekoak. Erandioko Goierri taldeagaz joan dira eta gehienentzat mundu mailako lehenengo esperientzia izan da



Herbehereetako lur gaineko munduko txapelketan aritu diren tiralari abadiñoarrak.

SOKATIRA • JOSEBA DERTEANO

Abadiñoako Sokatira Taldeko zazpi gaztek sekula ere ahaztuko ez duten esperientzia bizi izan dute oraintsu. Herbehereetan lur gaineko munduko sokatira txapelketan aritu dira, gehienen kasuan lehenengoz. Honako hauek dira

Erandioko Goierri taldeagaz Holte herrian aritu direnak: Olatz eta Irati Abarrategi, Amaiur Uriarte, Xabier Irazola, Asisko Arruabarrena, Maui Mandaluniz eta Martxel Azkorbebeitia. Denak Abadiño Sokatira Taldean dabilta eta 17 eta 23 urte artean dituzte.

Munduko txapelketaren batean esperientzia zuen bakarra Martxel Azkorbebeitia zen. Orain urte bi Irlandan lehiaturiko goma gainekoan aritu zen; baita iaz Getxon izandako lur gainekoan ere. Azken hori txapelketa deskafeinatu samarra

izan zen, pandemiaren eraginez hainbat taldek ez zutelako parte hartu, baina oraingoan den-denak aritu dira. "Esperientzia zoragarria izan da, asko gozatu dugu", esan du Azkorbebeitiak, baina segituan zehaztu ditu bere berbak: "Tira, sufrizuz gozatu

dugu". Sokatiran gutxi dira-eta sufrimendurik bako tiraldiak.

Horren adibide bat mutilek China Taipei taldearen kontra izandako tiraldi bat. Sei minutu iraun zuen. "Oso gogorra izan zen", gogoratu du abadiñoar gazteak. Orain kolpea talde batek, gero besteak... luzaroan aritu ziren horrela aurkaria desorekatu guran. Azkenean, txinatarrak lortu zuten finalerdietarako sailkapena.

Nesken kasuan, laugarren postu bat izan dute emaitzarik onena. Finalerdietan lehenengo tiraldia irabazi, baina beste biak galdu zituzten, txapelketako kanporaketarik estuenetari-koan.

Denboraldia martxan

Abadiño Sokatira Taldean hasi dituzte aurtengo entrenamenduak. Mutiletan nahiz nesketan, ikasten jarraitzea eta iazko denboraldiagaz alderatuta pauso bat aurrera ematea dute helburu.

Mutilak martitzen eta eguene-tan entrenatzen dira, 20:00etan, Abadiñoako probalekuan. Neskak astelehen eta eguaztenetan, ordu berean. "Sokatira probatu gura duten denentzat dugu zabalik atea", dio Azkorbebeitiak.

Jokaldia

Atxondo, mendi lasterkarion bateragune

Euskal Mendi Federazioak mendi lasterketen sailean hiru txapelketa aurkeztu zituen 2022rako: Ultra txapelketa, Lineakoa eta Bertikal txapelketa. Bada, Ultra txapelketa izan ezik, beste modalitate bietakoak Atxondon izan dira, hamabost eguneko aldearekin. Lineakoa Axpen izan zen, irailaren 17an (Sorginen Lasterketa), eta kilometro bertikal txapelketa, urriaren 1ean, Arrazolan izan zen (Anboto KB).

Pertsonalki ezin naiz pozago egon hainbeste lagun azken aste hauetan Atxondon elkartu izanaz. Anbotoko mendikatea lasterkariontzat itzelezko ingurunea dela deritzot eta agerian gelditu da zaleentzat ere oso erakargarria izan direla lasterketa biak. Axpen



Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak

Axpen 300 korrikalari batu ginen eta ibilbidean zehar ikusle asko izan genituen animatzen

Arrazolatik Anboto puntara ez zegoen 20 metroko tarterik ikuslerik gabe

300 korrikalari batu ginen eta ibilbideak zituen 20 kilometroetan zehar ikusle asko izan genituen animatzen, nahiz eta Artolako igoeran aurkitu pilaketa handienak (hunkigarria izan zen). Arrazolan, bestalde, Anboto Kilometro Bertikalean 250 korrikalariaren muga beteta eta eguraldia lagun, Arrazolatik hasi eta Anboto puntaraino ez zegoen 20 metroko tarterik ikuslerik gabe. Ederra izan zen bertan bizitakoa, zaleen berotasuna gertutik sentitzea bezalakorik ez dago eta benetan diotsuet oso lasterketa gutxitan egoten dela hainbeste ikusle.

Lasterketa bietan lehiatu osteko sentazioak oso atseginak izan ziren niretzat, batez ere, etxekoen ondoan lehiatzeaz gain, euskal mendi korrikalari gehienak elkartu ginelako Atxondon.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. - 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 886
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA: Nueva Promoción. Eraikuntza berria. Udaletxe ondoan. Etxebizitza eta baxuak lorategiarekin. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= A. 232.000 €-TIK AURRERA.**

// AUKERA

ZALDIBAR: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. terraa. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**

BERRIZ (MURGOITIO): 80 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela, Terraza, Argitsua. **C.E.E.=E. 110.000€**

MATIENA: 2 logela, komuna, sukaldea handia. Igogailua. **C.E.E.=F.129.000**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

MARTXOAREN 8KO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E= E 330.000 €**

ALLUITZ: 4 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia terrazarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E= F 245.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. terraza. garaje itxia. **C.E.E= E. 188.000 €**

EZKURDI: 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. garajea aukeran. **C.E.E=E. 240.000 €**

ASK. ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea aukeran. **C.E.E= E. 275.000 €**

KALEBARRIA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= F. 150.000€**

ABADIÑO (TERESA LARIZ): 81m². 2 logela, komuna eta egongela. Terraza. Ganbara. **C.E.E.= E. 160.000 €**

JUAN OLAZARAN: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Eskegitokia. Garajea eta trasatelekua. **C.E.E= B. Jantzia.**

KOMENTUKALE: 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **C.E.E.= E. 239.500 €**

SAN FRANZISKOKO: 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia ganbarekin. **C.E.E.=E. 195.000 €**

ELORRIO (SAN PIO): 95m². Erdialdean. 4 logela, 2 komun eta egongela. 2 terraza. Ganbara. **C.E.E.= F. 190.000 €**

TRONPERRI: 117m². Erdialdean. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txoko komunitarioa. **C.E.E.=F. 286.000 €**

ABADIÑO-DUPLEX: Eguzkitsua. 2 solairutan banatuta. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Trastelekua solairuarekin eta garajea. **C.E.E= E. 230.000€.**

MARTXOAREN 8KO: 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. **C.E.E.= F. 248.000€**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna, eta egongela. **C.E.E= F. 145.000 €.**

A.ESTEGIZ. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. **C.E.E=E.180.000 €.**

F.J. ZUMARRAGA. Erdialdean. 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukaldea. Terraza. **C.E.E.= E.195.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

// LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai.

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

// BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

// GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

// LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

// LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 75 m²
3 logela

ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guneetatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.

187.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 85 m²
3 logela

ASTEPE: 85 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Igogailua. Seigarren solairua. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-hegoaldea) Argitsua. Ikuspegiak. leku onena kokatua. 6 m²-ko trastelekua. Berrinkuntzak behar ditu. Garajea aukeran + 19.000 €

230.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 95,5 m²
4 logela

ASKATASUN ETORBIDEA: 95,5 m². Egongela handia, sukaldea, 4 logela, bainugela, komuna eta eskegitokia (patioa). Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du. (iparalde) leku onena kokatua (zonalde berdeak eta zerbitzuek) ITE oraintsu pasatakoa. Berrizatzeko. Zure gustora jartzeko aproposa. Garajea aukeran + 25.000 € (etxebizitzatik gertu).

240.000 € C.E.E:G

MATIENA 95,5 m²
3 logela

EZKURDI: 95,5 m². Egongela handia, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela eta eskegitokia (patioa). Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) leku onena kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. ITE oraintsu pasatakoa. Erdi berrizatzua. Garajea aukeran + 25.000 € (etxebizitzatik gertu).

275.000 € C.E.E:G

BERRIZ 85 m²
2 logela

MARTXOAREN 8'KO: (2008. urtean eraikia): 85 m². Egongela handia, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde/ mendebalde) Argitsua. Hiriguneko sarreratik gertu. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. 18 m²-ko garaje itxia.

330.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 93 m²
3 logela

IBAIZABAL: (2.006 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoaldea) Argitsua. Leku onena kokatua (zonalde berdeak, eta zerbitzuek) Egoera onean. 29,70 m²-ko garaje bikoitza itxia eta 10,67m²-ko ganbara.

380.000 € C.E.E: Bidean

// DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/E.E.Z=F**

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. **150.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

// ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

// BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

// GARAI

MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

// IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

// IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

// OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

// ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

// BERRIAK

DURANGO

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. Igogailua, garajea eta trastelekua. **300.000€/E.E.Z=D**



Botikak

BARIKUA, 7 · 09:00-09:00	UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA, 10 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 8 · 09:00-09:00	09:00-22:00
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	MARTITZENA, 11 · 09:00-09:00
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO INTXAURRONGO 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE 6. - ELORRIO	EGUAZTENA, 12 09:00-09:00
FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	EGUENA, 13 · 09:00-09:00
09:00-14:00	BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 9 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA
Zorionak, **Lur (906. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Ane Jainagak 11 urte egiten ditu urriaren 10ean. Zorionak bihotz-bihotzez!



Zorionak, **Miguel** deuna. Ia edarto baten ospatzeozun egune banako bat dantzatuz. Idi probetara jueten afizionaua bai, baia ididexek nozko, txikito? Ongi etorri 30en klubera. Juerga osteko buruko minak luiziauek, ulie jausi... Zorte on.



Gure **Eñautek** 9 urte egiten ditu urriaren 9an. Zorionak, bihotza, Liberen, aitaren eta amaren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, Sapotxin! Atzo 4 urte bete zenduzan! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu, **Zuhaitz!**



Zorionak, **Lur**, aittitteren, amamaren, birramamaren eta etxeko guztion partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 19° / 12° ☁

ASTELEHENA ↓ 22° / 13° ☁

EGUAZTENA ↓ 21° / 13° ☁

DOMEKA ↓ 27° / 11° ☁

MARTITZENA ↓ 22° / 14° ☁

EGUENA ↓ 23° / 12° ☁

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

"Txekian itsasoaren falta igartzen dut, eta arrain ona jatearena"

Iker Totorika durangarrak urte bi daramatza Txekiar Errepublikan, Batz enpresak han duen lantokian proiektu kudeatzaile lanetan. Txekian negua gogorra eta luzea dela dio



Iker Totorika Txurruka
Txekian bizi da
DURANGO | 1985

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Iker Totorika haize berri bila joan zen Txekiar Errepublikara, lan aukera berri bat aprobetxatuta. Familia, ilobatxoa eta lagunak bisitatzea etortzen da tarteka Euskal Herrira.

Txekiar Errepublika eta Euskal Herria oso desberdinak dira?

Alderdi askotan bai. Neguak luzeak eta gogorak dira hemen; eskiatzea gustuko baduzu, zoragarri, baina ez da nire kasua. Menditsua da baina ez du kostarik, eta niri asko gustatzen zaizkit hondartza eta kostako jaiak. Errepide askotan obratan daude urte osoan, eta gorroto dut hori.

Batzuetan luze jotzen du lekuetara ailegatzeak.

Zelan egokitu zara hango bizimodura?

Ni etorri baino hile batzuk lehenago lankide batzuk etorri ziren; horrela errazagoa da egokitzea. Hala ere, ez ditut ohiturak guztiz aldatu. Otorduetarako ordutegia mantendu egin dut, adibidez. Ezinezkoa zait 11:30ean bazkaltzea eta 18:00etan afaltzea. Baina etxean sartu eta segituan erantzten ditut oinetakoak. Txekiarrengandik ikasi dut hori (barrez).

Ondo moldatzen zara txekieraz?

Moldatzen naiz, zelanbait. Banaiz gauza esaldi sinpleak osatzeko, eta

gauzak modu errazean eskatzeko. Ulertu bai, gehiago ulertzen dut. Baina esan behar dut planetako hizkuntzarik gaxtenetarikoa dela.

Ez ditut ohiturak guztiz aldatu. Ezinezkoa zait 11:30ean bazkaltzea eta 18:00etan afaltzea

Zerk harritu zaitu gehien?

Trolebusak ikusi daitezke oraindino, baina, aldi berean, oso normala da kreditu txartela erabiltzea ga-

ragardo bat ordaintzeko. Bestalde, gazterik ezkondu eta seme-alabak izateko duten joerak harritu nau. Hemen, 25 urte gaz ezkondu barik dagoenari korapilota egiten zaio urdailean, batez ere emakumeen kasuan. Lagunartez eta bizitzaz gehiago disfrutatu beharrean, bizitzaren zatirik handiena etxe bat eraikitzen eta bikotekideagaz ematen dute.

Aurretik Zeelanda Berrian ibilia zara. Orain, Txekian. Etxetik kanpora zaudenean zeren falta igartzen duzu gehien?

Karrera amaitu berri joan nintzen Zeelanda Berrira, neskalaguna nuenagaz. Ingelesa ikastera eta bizitzako esperientziaren bila joan nintzen, eta bizipen hark Txekiar etortzeko erabakia hartzea lagundu zidala esango nuke. Zeelanda Berrian gure janariaren falta igarri

Trolebusak ikusi daitezke oraindino, baina, aldi berean, oso normala da kreditu txartela erabiltzea garagardo bat ordaintzeko

nuen. Txekian, itsasoaren falta eta arrain ona jatearena. Eta bietan kuadrillaren eta herriko jaien falta; Euskal Herrian baino ez dugu hori.

Txekiako txoko bat?

Txoko polit asko dago, Txekia Praga baino ez dela ematen duen arren. Adibidez, ipuin batetik ateratakoa ematen duen Cesky Krumlov herrixka, Pragatik ordu bi eta erdira. Kaleetatik paseatzea eta bertako gazteluko ikuspegia zoragarriak dira.

Sanfaustoen falta igarriko duzu?

Egia esan, pandemia dela-eta urte bi San Faustoez gozatu barik geratu naiz, baina ez ni bakarrik, baita durangar guztiak ere. Aurten ere galduko ditut, bai, baina uda amaieran Euskal Herritik ibili naiz, eta Bilboko festetan eta Lekeitioko Antzara Egunean ere ibili nintzen, eta, beraz, neurri batean asetuta geratu naiz euskal jaiekin.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Gabonetako argien alde

Abiadura aurpegiarekin begiratzen diogu gertatzen ari den guztiari aspaldian: gerra hotsak geroz eta ozenago, erregaien eskasia kale bazterrean, krisi klimatikoa etxepean. Logelako bentanatik begiratu eta laster gabonetako edo neguko argiak ipintzen hasiko dira, eta, zer esango dut ba?

Lekuz kanpo daudela, zelan ez, ekologismoaren ustezko doinu. Lanetik irteetan kantatuko dut: orain arteko kontsumo ereduari ezingo diogu eutsi, planetak ez digu utziko. Eta egia da hori, egia den bezala momentuz denak martxan jarraituko duela neguko argiek izan ezik. Lehen-tasunen melodia hori pegatuko zait. Agian, hemendik eta urte batzuetara, musika horrekin, kandelen argitan afalduko dut, enpresa handiak martxan daudela, konpromisoagatik. Partitura jarraitzea besterik ez da.

Gabonetako argiak kentzen hasiko gara, herriko jaiak bertan behera utzita jarraitu, eta horrela aisialdia kamustu arte zeharo. (Profeta zoroa nirudike hau dagoeneko gertatu ez balitz). Edozer, produkzioa geratzea salbu.

Enpresak publikoak eta langileen kontrolpekoak balira, erabaki ahalko genuke zer amaturatu zein momentutan, gizarte moduan zer produzitu eta zer ez, baliabide urriak zelan erabili, desazkundera nondik egin. Eta neguko gau luzeenetan, ederra izango da herriko plazak argiekin apaintzea, ez oraingo kontsumismoaren laudorio kutre horrekin, baizik eta artea dei daitezkeen argiztapen sasoikoarekin, edonoren begien gozagarri, debalde, denontzat.

Bitartean, eskasia batzuentzako izango da soilik, eta irabaziak gutxi batzuenak. Argiontzi itsuak alferrik direlako bide bazterretan, aurrera egin gura duenarentzat.

Estetika gida

anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491